

# 2024

**Arabako Lurralde Historikoaren**
**Hiri-hondakinen Inbentarioa**

**Inventario de Residuos Municipales**
**del Territorio Histórico de Álava**

HONDAKINen BEHATOKIA
OBSERVATORIO DE RESIDUOS

araba álava
foru aldundia diputación foral

# Edukien aurkibidea


1.Hitzaurrea ..... 1

1.1. Arabari buruzko datuak ..... 2

1.2. Bilketa-sistemak ..... 6

1.3. Bilketaren bilakaera ..... 9

1.4. Hondakinen tratamendua ..... 14

1.5. Laburpen orokorra ..... 16

2. Kudeaketa-unitateak ..... 16

2.1. Añanako kuadrilla ..... 18

2.2. Aiarako kuadrilla ..... 27

2.3. Gorbeialdeko kuadrilla ..... 36

2.4. Guardia-Arabako Errioxako kuadrilla ..... 45

2.5. Arabako Lautadako kuadrilla ..... 56

2.6. Arabako Mendialdeko kuadrilla ..... 65

2.7. Vitoria-Gasteizko kuadrilla ..... 74

3. PRU2030aren helburu estrategikoak ..... 82

4. Ondorioak ..... 97

## Laburpenen zerrenda:

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa
AFA: Arabako Foru Aldundia
FOGO (gaztelaniazko siglen arabera): Jatorrian kudeatutako frakzio organikoa
FORS (gaztelaniazko siglen arabera): Gaika bildutako frakzio organikoa
HORECA (gaztelaniazko siglen arabera): Hotelak, jatetxeak eta kafetegiak
EIN: Estatistikako Institutu Nazionala
MITECO (gaztelaniazko siglen arabera): Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa
EKP: Erabileraz kanpoko pneumatikoak
HE: PRU2030aren helburu estrategikoa
AA: Atez ate
TEET: Tresna elektriko eta elektroniko txikiak
BPG: Barne-produktu gordina
LGG: Landa-gune garbia
PRU2030: Arabako hiri-hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko plana, 2017-2030
PREST. X BERRERAB.: Berrerabiltzeko prestakuntza
PBM: Puntu Berde Mugikorra
TEEH: Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak
EEH: Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak
HEA: Hondakin ez-arriskutsuak
HA: Hondakin arriskutsuak
SCRAP (gaztelaniazko siglen arabera): Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboa (lehenago SIG)
SIGRE (gaztelaniazko siglen arabera): Industria farmazeutikoko ontzien kudeaketa eta bilketarako sistema integratua
TMB: Tratamendu mekaniko-biologikoa

## Izen ofizialen laburpenak:

**Añanako kuadrilla** (Añana)
**Aiarako kuadrilla** (Aiara)
**Gorbeialdeko kuadrilla** (Gorbeialdea)
**Guardia-Arabako Errioxako kuadrilla** (Arabako Errioxa)
**Arabako Lautadako kuadrilla** (Lautada)
**Arabako Mendialdeko kuadrilla** (Mendialdea)
**Vitoria-Gasteizko kuadrilla** (Vitoria-Gasteiz)

## 1. Hitzaurrea

*Arabako Lurralde Historikoaren Udal-hondakinen Inbentarioa Hiri Hondakinen Behatokia*k idatzitako agiria da. Hiri Hondakinen Behatokia hiri-hondakinen kudeaketari dagozkion alderdi guztiak koordinatu eta jarraitzen dituen organoa da, ***Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak, 2017-2030 edo PRU2030***ak adierazten duen arabera. Agiri honen helburu nagusia lurraldeko hondakinen kudeaketari buruzko ikuskera eguneratua eskaintzea da. Horrela, PRU2030ean ezarritako helburuak bete ahal izateko beharrezkoak diren erabakiak hartzea errazten da.

Lehenik, dokumentuak Arabako Lurralde Historikoko hondakinen bilketa eta kudeaketari buruzko datuak jasoko ditu. Ikusiko dugunez, bilketek bilakaera ona izan dute aurreko urtearekin eta, frakzio nagusien bilketen kasuan, 2010era arte doan historiarekin alderatuta. Bigarrenik, lurraldea osatzen duten zazpi kuadrilletako bakoitzerako lurraldearen antzeko azterketa aurkezten da. Azkenik, hondakinen bilketa eta kudeaketarekin zuzenean erlazionatuta dauden *PRU2030*aren (2.-7. helburu estrategikoak) jarraipen-adierazleak aurkeztuko dira.

Beste alde batetik, PRU2030aren helburuen jarraipenaz gain, estatuko legeriatik eratorritako betebeharren jarraipena egitea ere ahalbidetuko du. 2024ko abenduaren 31rako, ***7/2022 Legeak (ekonomia zirkular baterako hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzkoa)*** oihal-hondakinak, bolumen handikoak, sukaldeko olio erabiliak eta etxeko hondakin arriskutsuak bereiz biltzeko sistemak ezarri behar izan dira. Arabako Lurralde Historikoaren kasuan, betebehar hori bete egin da. Izan ere, bilketa-sistema horiek ondo errotuta daude lurraldean.

Zehazki, frakzio horien bilketak lurraldeko udalerri guztietan egiten dira:

- Oihal-hondakinak: Oihal-hondakinak eta beste frakzio berrerabilgarri batzuk lurraldeko 51 udalerrietan biltzeko edukiontzien bidez. Edukiontzien bidezko bilketa horrekin batera, beste bilketa batzuk ere egiten dira Puntu Berde Mugikorraren (PBM) eta beste 10 garbiguneen bitartez.
- Bolumen handikoak: Lurraldeko 51 udalerriek daukate bolumen handiko altzariak eta tresneria biltzeko zerbitzu berezia, landa-gune garbien sareak (LGG) eta garbiguneek eskainitako bilketa-zerbitzuaz gain.
- Sukaldeko olio erabiliak: Edukiontzien bidez biltzen dira 32 udalerritan (biztanleriaren % 96a). Arabako Mendialdearen (Arraia-Maeztu soilik) eta Arabako Errioxaren (Bastida soilik) salbuespenarekin, gainerako kuadrillek sukaldeko olio erabilien bilketa ezarri dute udalerri guztietan. Bilketa horri PBM eta garbiguneen bidez egindako bilketa gehitu behar diogu.

- Etxeko hondakin arriskutsuak: PBM edo garbiguneen bidez biltzen dira lurraldeko udalerri guztietan. Gainera, Aiarako kuadrillak ekoguneak dauzka banatuta bere 5 udalerrietan zehar. Horietan, pilak, CDak, tresna elektriko eta elektronikoak, bonbillak eta kartutxoak bota daitezke, besteak beste.

Puntu Berde Mugikorrarekin (PBM) egiten diren bilketei dagokienez, lurraldearen 51 udalerrietan burutzen dira, foru-zerbitzuaren edo udal-zerbitzuaren (Vitoria-Gasteizen kasuan) bidez. Garbiguneak, beste alde batetik, 9 udalerritan daude erabilgarri (Amurrio, Laudio, Agurain, Alegría-Dulantzi, Gaubea, Iruña Oka, Kanpezu, Oion eta Vitoria-Gasteiz). Landa-gune garbien sarea 27 udalerritan dago erabilgarri, eta instalazio mota horiek ez dituzten inguruko beste udalerriek ere daukate hura erabiltzeko aukera.

Dokumentuan zehar ikusiko denez, aipatutako frakzio guztietarako bilketa-sistemak ezarriz, legeriaren helburu guztiak bete dira. Beraz, bilketa-datu egokiak dauzkagu sortutako udal-hondakinak modu eraginkorrean kudeatzearen alde egiten duen lurralderako.

## 1.1. Arabari buruzko datuak

2024. urtean, bilketa bereizia % 8an handitu da. Horrek 2023an baino 3000 tona gehiago egiten ditu. Gainera, aurreko urtean baino % 1 hondakin nahastu gutxiago bildu dira. Joera hori 2015. urtetik mantendu egin da, gero eta hondakin gehiago biltzen baitira bereiz eta gero eta hondakin nahastu gutxiago biltzen baitira.

1. taulan, berdez agertzen dira ingurumenarekiko onuragarriak diren aldaketak; gorriz agertzen direnak, aldiz, kaltegarritzat hartzen dira. Aipagarria da hondakin nahastuen murrizketa beti dela positiboa. Gainera, ***2019/1004 Europako Batzordearen Betearazpen Erabakiak*** ezarritako irizpideari jarraituz, urte ezberdinen artean ematen diren % 10a baino gehiagoko aldaketak baloratuko dira, aldaketa txikiagoak aldagai estokastikoengatik gauzatu daitezkeela kontuan izanez.

| | ARABA, 2023 | %a pisuan | ARABA, 2024 | %a pisuan | Konparaketa |
|---|---|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 80.201.823 | % 61 | 79.600.714 | % 59,1 | -% 1 |
| SUKALDEKO OLIOA | 237.278 | % 0,2 | 254.359 | % 0,2 | % 7 |
| ONTZI ARINAK | 8.511.219 | % 6,5 | 8.562.100 | % 6,4 | % 1 |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 5.147.463 | % 3,9 | 5.351.385 | % 4 | % 4 |
| FORS | 5.131.299 | % 3,9 | 5.820.855 | % 4,3 | % 12 |
| FOGO | 1.211.708 | % 0,9 | 1.012.626 | % 0,8 | -% 20 |
| INAUSKETA | 5.727.680 | % 4,4 | 7.029.485 | % 5,2 | % 19 |
| BEIRA | 8.365.920 | % 6,8 | 8.314.788 | % 6,6 | -% 1 |
| PAPERA | 11.902.125 | % 9,1 | 13.492.471 | % 10,0 | % 12 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 1.375.397 | % 1 | 1.406.473 | % 1 | % 2 |
| TEEH | 1.362.207 | % 1 | 1.534.360 | % 1,1 | % 11 |
| ZURA | 1.517.492 | % 1,2 | 1.662.231 | % 1,2 | % 9 |
| BESTE HEA BATZUK | 484.721 | % 0,4 | 508.850 | % 0,4 | % 5 |
| ARRISKUTSUAK | 219.065 | % 0,2 | 218.254 | % 0,2 | % 0 |
| GUZTIRA | 131.395.397 | | 134.768.951 | | % 2,5 |
| Biztanleak (EIN) | 336.686 | | 339.137 | | % 0,7 |
| kg/biztanleko-urtea | 390,26 | | 397,39 | | % 1,8 |

**1. taula:** Hondakinen sorkuntza, 2023-2024 (balioak kg-tan)

Bilketa bereizien kasuan, FOGO frakzioa jaitsi egin da, baina horren arrazoia FORS frakzioaren gehikuntzan islatzen den kontabilitate-aldaketa izan da. Hortaz, ez da esanguratsua.

Handitu diren frakzioei dagokienez, inausketaren balioa 2023koa baino % 19a handiagoa da. Frakzio interesgarria da, normalean kontabilizatzeko zaila baita, pisatu gabe biltzen delako. Ondorioz, gutxietsi egin ohi da.

Papera eta kartoia ere handitu egin dira 2023ko datuekin konparatuz gero. Gehikuntza hori lurraldeko hiri-eremuetako bilketa handiagoarekin lotuta dago, hala nola Vitoria-Gasteizko eta Aiarako kuadrillak. Izan ere, gainerako kuadrilletan jaitsiera nabarmena egon da, 2024ko

otsailetik papera eta kartoia biltzeaz arduratzen den enpresarekin arazo jakin batzuk egon dira eta. Azkenik, TEEH frakzioaren bilketaren hazkundea baloratzea zaila da, gehienbat pribatuan egiten delako eta ez duelako inolako loturarik lurraldeko administrazioek egiten dituzten bilketekin.

Irudikatutako frakzio guztien artean, Beste HEA batzuk eta Hondakin arriskutsuak oso frakzio zailak dira, izaera oso ezberdineko hondakinak hartzen baitituzte barne. Hondakin horiek kopuru txikietan sortzen dira, baina, behar bezala kudeatuz gero, ingurumenarekiko duten eragina oso positiboa da. Normalean, garbiguneen sarearen eta Puntu Berde Mugikorraren (PBM) bidez biltzen dira, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren pilen bilketa komertzialaren, Aiarako kuadrillako ekoguneen eta farmazien SIGRE kudeaketa-sistema integratuaren medikamentu-bilketaren bidez ere.

| BESTE HEA BATZUK | kg |
|---|---|
| Plastikoak | 195.705 |
| Metala | 168.623 |
| Erabiltzen ez diren pneumatikoak | 72.936 |
| Beira laua | 53.360 |
| Su-itzalgailuak | 5.425 |
| Poliestireno hedatua | 4.900 |
| Tonerrak eta kartutxoak | 3.827 |
| Beste batzuk | 1.600 |
| CD-DVD | 1.534 |
| Bonbonak | 940 |
| **GUZTIRA** | **508.850** |

| ARRISKUTSUAK | kg |
|---|---|
| Pintura zaharkituak | 62.897 |
| Medikamentuak | 38.825 |
| Olio minerala | 29.800 |
| Pilak | 22.687 |
| Bateriak | 17.326 |
| Erreaktibo eta kimiko zaharkituak | 15.184 |
| Kutsatutako plastikozko ontziak | 7.764 |
| Erregai eta olioen iragazkiak | 3.473 |
| Zuntz-zementua | 3.240 |
| Kutsatutatako material xurgatzailea | 3.080 |
| Aerosolak, produktuarekin | 2.739 |
| Aerosolak, hutsik | 2.326 |
| Kutsatutako metalezko ontziak | 1.698 |
| Fitosanitario zaharkituak | 1.618 |
| Izotz-kontrakoa/Likido hozgarria | 1.594 |
| Hidrokarburo-nahasketa | 859 |
| Erradiografiak | 783 |
| Beste arriskutsu batzuk | 694 |
| Koipeak eta break | 521 |
| Termometroak | 442 |
| Inprimatzeko tintak | 391 |
| Kutsatutako beirazko ontziak | 313 |
| **GUZTIRA** | **218.254** |

**2. eta 2. taulak:** Beste HEA batzuk eta Arriskutsuak frakzioen banaketa, 2024 (balioak kg-tan)

Hurrengo orrian, 4. taulak frakzio guztien kopuruen bilketei buruzko datuak adieraziko ditu kuadrillen arabera, eta honakoak hartuko ditu barne:

- Jasotako guztizko hondakinetarako kg/biztanleko-urtea ratioaren kalkulua
- Hondakin nahastuen (Hondar frakzioa) bilketaren eta bilketa bereiziaren ehunekoa.
- Berrerabiltzeko prestakuntzaren (berrerab. prest.) eta birziklapenaren ehunekoa

| 2024. URTEA | AÑANA | AIARA | GORBEIALDEA | ARABAKO ERRIOXA | LAUTADA | MENDIALDEA | VITORIA-GASTEIZ | ARABA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 2.711.821 | 8.329.120 | 2.910.532 | 4.005.080 | 2.692.279 | 1.081.479 | 57.870.403 | 79.600.714 |
| SUKALDEKO OLIOA | 3539 | 21.296 | 4225 | 2564 | 1580 | 1188 | 219.967 | 254.359 |
| ONTZI ARINAK | 266.648 | 858.320 | 338.862 | 378.849 | 362.819 | 102.625 | 6.253.977 | 8.562.100 |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 407.350 | 359.840 | 296.005 | 211.479 | 293.241 | 193.410 | 3.590.060 | 5.351.385 |
| FORS | 621.500 | 336.493 | 58.840 | 228.013 | 0 | 0 | 4.576.009 | 5.820.855 |
| FOGO | 42.804 | 180.600 | 295.256 | 73.624 | 244.857 | 63.675 | 111.810 | 1.012.626 |
| INAUSKETA | 740.440 | 447.330 | 889.200 | 118.225 | 243.000 | 128.340 | 4.462.950 | 7.029.485 |
| BEIRA | 263.295 | 836.119 | 360.712 | 618.431 | 380.891 | 186.890 | 5.668.450 | 8.314.788 |
| PAPERA | 222.073 | 1.113.214 | 220.218 | 342.405 | 323.000 | 75.360 | 11.196.201 | 13.492.471 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 54.549 | 163.103 | 39.500 | 54.336 | 69.721 | 17.626 | 1.007.638 | 1.406.473 |
| TEEH | 49.728 | 106.379 | 34.713 | 78.716 | 65.446 | 22.880 | 1.176.498 | 1.534.360 |
| ZURA | 132.871 | 745.575 | 2581 | 82.270 | 174.617 | 42.397 | 481.920 | 1.662.231 |
| BESTE HEA BATZUK | 81.934 | 120.080 | 331 | 35.984 | 105.112 | 28.924 | 136.485 | 508.850 |
| ARRISKUTSUAK | 23.876 | 23.488 | 5764 | 15.547 | 21.969 | 6771 | 120.839 | 218.254 |
| GUZTIRA | 5.622.428 | 13.640.957 | 5.456.739 | 6.245.523 | 4.978.532 | 1.951.565 | 96.873.207 | 134.768.951 |
| Biztanleak (EIN, 2024) | 9605 | 34.304 | 10.192 | 11.204 | 12.725 | 3139 | 257.968 | 339.137 |
| kg/biztanleko-urtea | 585,36 | 397,65 | 535,39 | 557,44 | 391,24 | 621,72 | 375,52 | 397,39 |
| Hondakin nahastuak | % 48 | % 61 | % 53 | % 64 | % 54 | % 55 | % 60 | % 59 |
| Bilketa bereizia | % 52 | % 39 | % 47 | % 36 | % 46 | % 45 | % 40 | % 41 |
| Birziklap. + berrerab. prestak. | % 44 | % 38 | % 45 | % 36 | % 44 | % 42 | % 40 | % 40 |

**3. taula:** Hondakinen sorkuntza frakzioen eta kuadrillen arabera, 2024 (balioak kg-tan)

## 1.2. Bilketa-sistemak

Atal honetan, Araban sortutako hondakinen datuak aurkeztuko dira, horiek biltzeko erabili den sistemaren arabera, hau da, nahasturik edo bereiz biltzen diren kontuan hartuta. Hondakin nahastuen frakzioak izan duen jaitsiera etengabearen ondorioz, bilketa bereiziak bilketa guztien % 41a izan dira lehen aldiz, honako frakzio hauek nabarmentzen dira: papera, biohondakinak, beira eta ontzi arinak. «Beste batzuk» kategorian, bereiz bildutako gehieneko frakzioak elkartu dira: landare-olioa, bolumen handikoak, oihal-hondakinak, TEEH, zura, beste HEA batzuk eta etxeko hondakin arriskutsuak.




**1. grafikoa:** Bilketa-sistemak, 2024 (%a pisuan, ehuneko borobilduak)

2023an egindako hondakin nahastuen zehazketari esker, hondakin nahastuen bilketaren bidez biltzen ari diren frakzioak identifika daitezke. Grafiko honetan adierazitako ehunekoek hondakin nahastuetako frakzio bakoitzaren ehunekoari (pisuan) buruzko informazioa eskaintzen dute. Ehuneko bat handitu izanak ez du zertan esan nahi frakzio jakin baten sorkuntza ere handitu denik. Frakzio jakin baten sorkuntza ezagutzeko, bere ehunekoa bildutako hondakin nahastuen kopuruarekin biderkatu behar da eta, ondoren, emaitza bereiz bildutako kopuruarekin batu.




**2. grafikoa:** Hondakin nahastuen zehazketa, 2023 (%a pisuan, ehuneko borobilduak)

Hondakin nahastuen sorkuntza gero eta txikiagoa dela kontuan hartuz, frakzio batzuen ehunekoek, aurreko zehazketarekin alderatuta handitu diren arren, bildutako hondakinen kopuru txikiagoa islatzen dute.

Zehazketaren bidez, nahasturik zein bereiz biltzen den frakzio bakoitzaren ehunekoa kalkula daiteke. Grafiko honetan frakzio bakoitzeko bilketa bereiziaren sistemen ehunekoa islatzen da. Berdez bereiz biltzen den ehunekoa adierazten da, eta grisez, berriz, hondakin nahastuen poltsatik eskuratzen den zatia irudikatzen da.




**3. grafikoa:** Frakzio bakoitzeko masako bilketaren edo bilketa bereiziaren ehunekoa (%a pisuan)

Beste hondakin ez-arriskutsuak, FORS, oihal-hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta ontzi arinak frakzioen bilketa bereizia % 50aren azpitik dago. Papera, TEEH eta beira frakzioen bilketa bereiziaren ehunekoek, aldiz, % 65a gainditzen dute.

Badaude hondakin nahastuen bilketaren barruan ez dauden frakzioak; hortaz, bilketa bereiziaren % 100eko balioekin irudikatzen dira: sukaldeko olio-hondakinak, jatorrian kudeatutako frakzio organikoa (FOGO) eta bolumen handiko hondakinak. Dagokion zutabea ez duen frakzio bakarra hondakin nahastuena da.

Bereiz edo nahasturik biltzen diren ehunekoak behar bezala aztertzeko, frakzio horren sorkuntzarekin erlazionatu behar dira. Sorkuntza hondakin nahastuen bilketaren eta bilketa bereiziaren bidez bildutako hondakinen batuketaren emaitza da.

Grafiko honetan, hondakin bakoitzaren sorkuntza adierazten da, hau da, nahasturik eta bereiz bildutako hondakinen batuketaren emaitza. Ohikoa denez, biohondakinak dira etxeetan sortzen den frakzio nagusia. Ondoren, papera eta ontziak daude, baina nahiko urrun. Beste batzuk izeneko kategorian, gutxiengoa duten frakzioak sartu ditugu. Hondarrak frakzioa balorizagarriak ez diren materialek osatzen dute.




**4. grafikoa:** Udal-hondakinen sorkuntza, 2024 (%a pisuan, ehuneko borobilduak)

Frakzio nagusien analisia aztertzeko, hau da, sortutako hondakinen % 75a gainditzen duten frakzioak, grafiko honetan sorkuntzan eta bilketan irudikatzen dituzten ehunekoak adierazi dira. Ikus daitekeenez, balorizagarriak ez diren hondakinak sorkuntzaren % 8a baino ez dira, baina hondakin nahastuen bilketak, aldiz, askoz ehuneko handiagoa du. Beraz, balorizagarriak diren beste hondakin mota baten kopuru handia hartzen dute barne.




**5. grafikoa:** Udal-hondakin nagusien sorkuntzaren eta bilketa bereiziaren ehunekoak (%a pisuan, ehuneko borobilduak)

Hondakin mota baten sorkuntzaren ehunekoa bere bilketa bereiziarena baino handiagoa bada, horrek esan nahi du hondakin horren zati bat hondakin nahastuen frakzioaren barruan biltzen ari dela. Hori argi eta garbi ikus daiteke biohondakinen frakzioan: sorkuntzaren % 40a dira, baina bilketaren % 10a besterik ez dira. Horrek adierazten du sortutako biohondakinen % 30a hondakin nahastuen barruan dagoela. Hori hondakin nahastuen zehazketa-datuetan antzeman daiteke; bertan, biohondakinak dira frakzio nagusia.

## 1.3. Bilketaren bilakaera

Grafiko hauek frakzio nagusien hondakin-bilketaren bilakaera irudikatzen dute: guztizko sorkuntza, hondakin nahastuak, papera, ontzi arinak, beira, biohondakinak eta oihal-hondakinak eta berrerabiltzekoak. Hondakinen bilketa-datuek ez dute EEH frakzioa barne hartzen 2018az geroztik, udal-hondakinen definizioa deuseztatu zenean; hala ere, aurreko urteetan agertzen da. Sailaren hasiera-urtea 2010 da, ***Ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legea***ren erreferentzia-urtea baita. Lege hori, izan ere, 2025eko hondakinen sorkuntzaren % 13ko murrizketa-helburua kalkulatzeko erabili da. 2024ko ekitaldian, sortutako hiri-hondakinen guztizko pisua 134.768 t-etara igo da. kg/biztanleko-urtea balioak kontuan hartuz, % 9ko jaitsiera izan du 2010. urtearekin konparatuta.

EAE eta estatuko kg/biztanleko-urtea balioen konparaketa EUSTAT, EIN, Ecoembes eta Ecovidrio erakundeen datuen iturrien datuetan oinarrituz osatu da. Kontsultatutako erakunde estatistikoek argitaratu dituzten azken datuak erakutsiko dira orain.




**6. grafikoa:** Udal-hondakinen bilketaren bilakaera, 2010-2024 (balioak t-tan eta kg/biztanleko-urtearen arabera)

Datuen iturriak: EIN, EUSTAT, Hondakinen Behatokia




**7. grafikoa:** Hondakin nahastuen bilketaren bilakaera, 2010-2024 (balioak t-tan eta kg/biztanleko-urtearen arabera)

Datuen iturriak: EIN, EUSTAT, Hondakinen Behatokia




**8. grafikoa:** Papera-kartoiaren bilketaren bilakaera, 2010-2024 (balioak t-tan eta kg/biztanleko-urtearen arabera)

Datuen iturriak: EIN, EUSTAT, Hondakinen Behatokia




**9. grafikoa:** Ontzi arinen bilketaren bilakaera, 2010-2024 (balioak t-tan eta kg/biztanleko-urtearen arabera)

Datuen iturriak: EIN, EUSTAT, Hondakinen Behatokia




**10. grafikoa:** Beiraren bilketaren bilakaera, 2010-2024 (balioak t-tan eta kg/biztanleko-urtearen arabera)

Datuen iturriak: EIN, EUSTAT, ECOVIDRIO, Hondakinen Behatokia




**11. grafikoa:** Biohondakinen bilketaren bilakaera, 2010-2024 (balioak t-tan eta kg/biztanleko-urtearen arabera)

Datuen iturria: Hondakinen Behatokia




**12. grafikoa:** Oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen bilketaren bilakaera, 2010-2024 (balioak t-tan eta kg/biztanleko-urtearen arabera)

Datuen iturriak: EIN, EUSTAT, Hondakinen Behatokia

## 1.4. Hondakinen tratamendua

Bildutako hondakinen tratamendu bereizia dela-eta, berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapen, balorizazio energetiko eta/edo isurketara zuzentzen diren materialen ehuneko ezberdinak sortzen dira. Nahiz eta teknikoki tratamendu bat ez izan, masa-galera ere irudikatu da hondakin nahastuen frakzioan. Tratamenduaren aurreko eragiketa hori hondakin nahastuen barruko biohondakinak egonkortzeko burutzen da, masa-galera hondakin horien hezetasunaren lurrunketa edo lixibiatuaren bidez gauzatuz. Grafikoan urdinez irudikatu da.




**13. grafikoa:** Tratamendu bereiziko frakzio bakoitzaren ehunekoa, 2024 (%a pisuan)

13. grafikoan ikusten den bezala, bereizita bildutako frakzioek aukera ematen dute hondakinen hierarkian modu nahastuan bildutako hondakinek baino tratamendu handiagoak egiteko.

Hondarrak frakzioko zutabean ezabaketara bideratuta dagoen % 74an hiru joera ezberdin daudela aipatu behar da:

a) hezetasuna murrizteko eta biodegradagarritasunerako prozesua jasan duten hondakinen % 24a, material bioegonkor deritzona;
b) plantan errefusatutako % 48a; eta
c) hondakin nahastuen frakzioaren % 2ko isurketa zuzena.

Hondakinen hierarkiaren terminologian oinarrituz, 14. grafikoan prebentzioa Araban sortutako hondakinetarako helmuga posible gisa sartu da. 2023. urtearekin konparatuta, ez da prebentziorik egon, sorkuntza % 2,5 igo baita. 2010arekin alderatuta (sorkuntzaren murrizketaren helburuaren erreferentzia), berriz, 2024an sorkuntza % 9a jaitsi da, kg/biztanleko-urtea balioak kontuan hartuz.




**14. grafikoa:** Tratamendu bakoitzaren ehunekoa, 2024 (%a pisuan)

Tratamenduen historia aztertuz gero, 2024an berrerabiltzeko prestakuntzaren eta birziklapenaren batuketaren emaitza % 40ra iritsi dela ikus daiteke; baliorik altuena izan da datu-seriea hasi zenetik. Balio hori ia bikoiztu egin da azken 10 urteotan.




**15. grafikoa:** Hondakinen tratamenduaren bilakaera, 2014-2024 (%a pisuan)

## 1.5. Laburpen orokorra

### Guztizko sorkuntza: 134.768 tona




**% 8 Beste hondakin batzuk:**

Bolumen handikoak, TEEH, arriskutsuak...

397,39 - KILO BIZTANLEKO ETA URTEKO



BILKETA BEREIZIA
% 41

HONDAKIN NAHASTUAK
% 59

## 2. Kudeaketa-unitateak

Arabako Lurralde Historikoak zazpi eskualde-erakunde dauzka administratiboki kudeatzeko. Horiek udal gaindiko izaera dute, eta «kuadrilla» izenarekin ezagutzen zaie. Kuadrillak bere lurralde-esparruan eragina duten interes orokorreko gaietan parte hartzeko, kontsultatzeko eta kudeatzeko organo gisa funtzionatzen du.

Hondakinekin erlazionatutako zerbitzuei dagokienez, horiek bajako hondakinen bilketarako autonomia-unitate gisa funtzionatzen dute, hau da, hondakinen frakzio nagusiak biltzen dituzte. Vitoria-Gasteizko Kuadrilla izan ezik, gainerakoei Arabako Foru Aldundiak laguntzen die papera-kartoia eta oihal-hondakinak eta berrerabiltzekoak bildu eta kudeatzen, baita sei garbigune, landa-gune garbi eta Puntu Berde Mugikorra (PBM) kudeatzen ere.

Kuadrillak kudeaketa-unitatetzat hartzen dira kontabilizatzean, eta eskualde- eta udal-mailan bildutako etxeko hondakinen datuak jaso dira. Udal-mailako hondakinen datuak zuzenean lortu dira edo, beste kasu batzuetan, banaketa proportzionala egiten kalkulatuz lortu dira, udalerri bakoitzaren biztanleriaren arabera. Bestalde, garbigune edo landa-gune garbietan bildutako hondakinak horiek dauden udalerrira lotzen dira kontabilizazioaren unean, udalerritik kanpo etortzen badira ere.

Kuadrilla bakoitzerako, frakzio nagusien historia ezagutarazi da: guztizko sorkuntza, hondakin nahastuak, papera, ontzi arinak, beira, biohondakinak eta oihal-hondakinak. Guzti horiek aldi bereko Arabako datuekin erreferentziatu dira.

Kuadrillen izaera autonomoa dela-eta, kuadrilla bakoitzean bildutako hondakinek jasotzen dituzten tratamenduei buruzko grafikoa ere azaltzen da. Horrela, ***Arabako hiri-hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planean (2030)*** edo ***PRU2030ean*** ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoak diren pausuak baloratu ahal izango dira.

## 2.1. Añanako kuadrilla



2024an azken urteotako joera hautsi da, eta ia frakzio guztien sorkuntza handitu egin da. Hondakinen sorkuntza % 7a areagotu da; gehikuntza hori hondakin nahastuen zein hondakin bereizien bilketen sorkuntza handiagoak eragin du.

Sorkuntzaren gehikuntza positiboa ez den arren, gehikuntzarik handienak bilketa bereizietan gauzatu izanak joera positiboa adierazten du.

Honako taula honetan, 2023 eta 2024ko bilketa-datuak elkartu dira, urte batetik besterako aldaketak ingurumen-irizpideen arabera koloreztatuz. Berdez ingurumena kontuan hartuz positiboak diren aldaketak adierazten dira, eta gorriz, berriz, negatiboak irudikatzen dira. Beraz, hondakin nahastuen frakzioaren jaitsiera positibotzat hartu behar da, baina ez da gauza bera gertatzen bereiz bildutako hondakinen kopuruekin.

***2019/1004 Europako Batzordearen Betearazpen Erabakiak*** ezarritako irizpideari jarraituz, urte ezberdinen artean ematen diren % 10a baino gehiagoko aldaketak baloratu behar dira, aldaketa txikiagoak aldagai estokastikoengatik gauzatu daitezkeela kontuan izanez.

| AÑANAKO KUADRILLA | 2023. urtea | 2024. urtea | Konparaketa |
|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 2.676.280 | 2.711.821 | 1% |
| SUKALDEKO OLIOA | 2.886 | 3.539 | 23% |
| ONTZI ARINAK | 265.304 | 266.648 | 1% |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 372.580 | 407.350 | 9% |
| FORS | 510.460 | 621.500 | 22% |
| FOGO | 42.204 | 42.804 | 1% |
| INAUSKETA | 559.870 | 740.440 | 32% |
| BEIRA | 285.777 | 263.295 | -8% |
| PAPERA | 238.566 | 222.073 | -7% |
| TEXTIL | 52.107 | 54.549 | 5% |
| TEEH | 34.661 | 49.728 | 43% |
| ZURA | 119.262 | 132.871 | 11% |
| BESTE HEA BATZUK | 64.186 | 81.934 | 28% |
| ARRISKUTSUAK | 19.881 | 23.876 | 20% |
| GUZTIRA | 5.244.024 | 5.622.428 | 7% |
| Biztanleak (EIN) | 9.514 | 9.605 | 1% |
| kg/bizt./urte | 551,19 | 585,36 | 6% |

**5. taula:** Hondakinen sorkuntza, 2023-2024 (balioak kg-tan)

% 1eko gehikuntza egon da hondakin nahastuen sorkuntzan. Horrek beherako joera hautsi du, baina aurreko ekitaldietako sorkuntza-balioetara iritsi gabe. Guztira, 2023an baino 35 tona gehiago dira.

Baliteke gehikuntzaren zati bat paperaren bilketaren parte bat hondakin nahastuen bilketarako desbideratzearen ondorioa izatea, % 7a jaitsi baita. Kuadrilla guztietan (Vitoria-Gasteiz izan ezik) papera biltzeaz arduratzen den enpresarekin izandako gatazkak paperaren bilketa-zerbitzua oztopatu du. Baliteke egoera hori paperaren bilketa ere jaitsi den beste kuadrilla batzuetan ere gertatu izana.

Beste alde batetik, ia frakzio guztiek izan dute gehikuntza nabarmena bilketari dagokionez, batez ere garbiguneen bidez biltzen diren frakzioen (TEEH, beste HEA batzuk eta hondakin arriskutsuak), biohondakinen (inausketa eta FORS) eta sukaldeko olio erabilien kasuan.

Hona hemen udalerrien arabera bildutako hondakinen taula. Frakzio gehienetan, banaketa biztanleriaren arabera egin da, udalerriaren araberako pisatze-datu zuzenik ez baitago.

| AÑANAKO KUADRILLA | Añana | Armiñon | Berantevilla | Iruña Oka | Kuartango | Lantaron | Erriberagoitia | Erriberabeitia | Gaubea | Zanbrana | AÑANA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HONDARRAK, edukiontzia | 40.320 | 69.161 | 136.921 | 1.016.968 | 116.201 | 259.842 | 241.642 | 406.843 | 300.162 | 123761 | 2.711.821 |
| LAND.-OLIOA, udalekoa | 33 | 149 | 9 | 1.177 | 76 | 48 | 124 | 218 | 386 | 98 | 2.318 |
| LAND.-OLIOA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 550 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 550 |
| LAND.-OLIOA, PBM | 16 | 23 | 45 | 88 | 40 | 94 | 83 | 142 | 98 | 42 | 671 |
| ONTZI ARINAK | 3.727 | 6.393 | 12.656 | 94.001 | 10.741 | 24.018 | 22.336 | 37.605 | 27.745 | 11.440 | 250.662 |
| ONTZI ARINAK, osagarriak | 236 | 411 | 764 | 6.034 | 679 | 1.541 | 1.406 | 2.395 | 1.784 | 736 | 15.986 |
| BOL. HANDIKOAK, LGG | 0 | 0 | 14.580 | 53.900 | 26.680 | 42.180 | 18.540 | 49.470 | 109.080 | 20.440 | 334.870 |
| BOL. HANDIKOAK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 59.100 | 0 | 0 | 0 | 0 | 13.380 | 0 | 72.480 |
| FORS | 0 | 7.783 | 7.783 | 46.695 | 0 | 9.728 | 3.891 | 25.293 | 15.565 | 7.783 | 124.521 |
| FORS, pribatua | 0 | 0 | 0 | 496.979 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 496.979 |
| FOGO, komunitatearena | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 7.644 | 0 | 7.644 |
| FOGO, etxekoa | 0 | 0 | 0 | 1.004 | 10.540 | 9.600 | 3.600 | 240 | 7.440 | 2.736 | 35.160 |
| INAUSKETA, LGG | 0 | 0 | 15.240 | 90.640 | 15.920 | 54.740 | 18.340 | 11.940 | 90.380 | 16.780 | 313.980 |
| INAUSKETA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 30.560 | 0 | 0 | 0 | 0 | 7.060 | 0 | 37.620 |
| INAUSKETA, udalekoa | 16.040 | 31.600 | 0 | 93.020 | 0 | 14.400 | 9.640 | 113.500 | 98.040 | 12.600 | 388.840 |
| BEIRA | 13.057 | 5.559 | 14.406 | 60.462 | 18.475 | 26.371 | 19.827 | 25.548 | 67.542 | 12.048 | 263.295 |
| PAPERA | 4.032 | 10.081 | 8.065 | 80.646 | 10.081 | 12.097 | 18.145 | 26.210 | 26.210 | 6.048 | 201.615 |
| PAPERA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 15.720 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3.040 | 0 | 18.760 |
| PAPERA, osagarriak | 25 | 44 | 81 | 641 | 72 | 164 | 149 | 254 | 190 | 78 | 1.698 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 550 | 956 | 1.777 | 14.036 | 1.580 | 3.585 | 3.272 | 5.572 | 4.151 | 1.711 | 37.190 |
| BERRERAB., Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 15.172 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2.187 | 0 | 17.359 |
| TEEH, PBM | 34 | 51 | 98 | 192 | 87 | 204 | 180 | 310 | 214 | 92 | 1.462 |
| TEEH, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 34.371 | 0 | 0 | 0 | 0 | 7.253 | 0 | 41.624 |
| TEEH, pribatua | 0 | 0 | 203 | 2.349 | 0 | 259 | 0 | 3.831 | 0 | 0 | 6.642 |
| ZURA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 99.100 | 0 | 0 | 0 | 0 | 31.340 | 0 | 130.440 |
| ZURA, osagarriak | 36 | 63 | 116 | 918 | 103 | 234 | 214 | 364 | 271 | 112 | 2.431 |
| BESTE HEA BATZUK, PBM | 5 | 7 | 15 | 28 | 13 | 30 | 27 | 46 | 32 | 14 | 217 |
| BESTE HEA BATZUK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 60.585 | 0 | 0 | 0 | 0 | 21.132 | 0 | 81.717 |
| ARRISKUTSUAK, PBM | 70 | 104 | 202 | 395 | 180 | 421 | 372 | 639 | 442 | 189 | 3.014 |
| ARRISKUTSUAK, SIGRE | 16 | 28 | 53 | 415 | 47 | 106 | 97 | 165 | 123 | 51 | 1.101 |
| ARRISKUTSUAK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 13.311 | 0 | 0 | 0 | 0 | 6.450 | 0 | 19.761 |
| GUZTIRA | 78.197 | 132.413 | 213.014 | 2.389.057 | 211.515 | 459.662 | 361.885 | 710.585 | 849.341 | 216.759 | 5.622.428 |
| Biztanleak (EIN, 2024) | 142 | 247 | 459 | 3.625 | 408 | 926 | 845 | 1.439 | 1.072 | 442 | 9.605 |
| kg/bizt./urte | 550,68 | 536,09 | 464,08 | 659,05 | 518,42 | 496,40 | 428,27 | 493,80 | 792,30 | 490,40 | 585,36 |
| Hondakin nahastuak | 52% | 52% | 64% | 43% | 55% | 57% | 67% | 57% | 35% | 57% | 48% |
| Bilketa bereizia | 48% | 48% | 36% | 57% | 45% | 43% | 33% | 43% | 65% | 43% | 52% |
| Birziklapena + Berrerab. prestak. | 48% | 48% | 35% | 55% | 43% | 42% | 33% | 42% | 61% | 42% | 49% |

**6. taula:** Hondakinen sorkuntza udalerriaren arabera, 2024 (balioak kg-tan)

## 2.1.1. Bilketa-sistemak




**16. grafikoa:** Bilketa-sistema bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Bilketa bereiziaren gehikuntzak eta hondakin nahastuen bilketaren gehikuntza txikiak eragin positiboa izan dute, bilketa bereizia hondakinen bilketa baino handiagoa izan baita lehen aldiz. Bilketa bereiziak duen % 52ko balioa baliorik altuena izan da lurraldeko kuadrilla guztien artean, eta horrek esan nahi du 2024. urtean 2035erako adierazitako bilketa bereiziaren % 50aren helburua bete eta gainditu dela.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar bilketa bereiziaren balio altu horiek LGGen bidez bildutako inausketa-hondarren eta bolumen handiko hondakinen bilketari esker eman direla batez ere. Bilketa horiek, kasu batzuetan, ezegokien ehuneko altua hartzen dute barne, eta baliteke bilketa bereizitzat ez hartzea. Hori da, adibidez, biohondakinen kasua, beren ezegokien ehunekoa % 20a baino handiagoa denean.

Beraz, behin ere, Añanako kuadrillak dauka lurralde osoko bilketa bereiziaren baliorik altuena; lurraldeko udalerri gutxi batzuek bakarrik gainditzen dute.

## 2.1.2. Bilketen bilakaera

Honako grafiko hauek parekatzen diren frakzio nagusien bilakaera erakusten dute 2010etik 2024ra arte. Hondakinen bilketa-datuek ez dute EEH frakzioa barne hartzen 2018az geroztik, udal-hondakinen definizioa deuseztatu zenean; hala ere, aurreko urteetan agertzen da.

2017tik eransten zaizkio kuadrillari Zaballako espetxetik datozen bilketa pribatuak; 2017tik baino lehen, Vitoria-Gasteizko Udaleko bilketa pribatuekin batera kontabilizatzen ziren.

Hala ere, ez dago 2016ko bilketen murrizketa handia balioztatzeko daturik. 2017ko igoera aipatutako bilketa pribatuak direla-eta gauzatu zen, eta 2018koa, ordea, EEH frakzioa ez zelako zenbatu.

COVID-19 pandemiak sortutako egoera berezia izan liteke 2020 eta 2021ean bildutako hondakinen areagotze nabarmenaren arrazoia. Hazkunde hori 2022tik aurrera izandako normaltasunerako itzultzearen ondorioa ere izan daiteke. Lehenago aipatu dugunez, bilketa bereizien gehiengoaren gehikuntzak areagotze nabarmena eragin du 2024ko bilketaren kasuan.




**17. grafikoa:** Hondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**18. grafikoa:** Hondakin nahastuen frakzioaren bilketaren historia, 2010-2024




**19. grafikoa:** Papera-kartoia frakzioaren bilketaren historia, 2010-2024




**20. grafikoa:** Ontzi arinak frakzioaren bilketaren historia, 2010-2024




**21. grafikoa:** Beira frakzioaren bilketaren historia, 2010-2024




**22. grafikoa:** Biohondakinak frakzioaren bilketaren historia, 2010-2024




**23. grafikoa:** Oihal-hondakinak eta berrerabiltzekoak frakzioaren bilketaren historia, 2010-2024

## 2.1.3. Hondakinen tratamendua




**24. grafikoa:** Tratamendu bereiziko frakzio bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Kuadrillan bildutako hondakin gehienen tratamendua Vitoria-Gasteizko udalerriko instalazio zentralizatuetan egiten da, gainerako lurraldeko hondakinekin batera. Hala eta guztiz ere, bildutako kopuruetan oinarrituz, hondakinen hierarkiaren araberako tratamendu posible bakoitzera zuzentzen den ehunekoa pisuan kalkula daiteke.

2023arekin alderatuta, gehikuntza nabarmena egon da birziklapenean, ia iritsi baita % 50era, 2025erako % 55aren helburura hurbilduz.

Berriro esanda, masa-galeraren tratamendua hondakin nahastuen frakzioaren materia biodegradagarriak lurrunketa edo lixibiatu bidez galtzen duen hezetasun-galera da. Galera hori Jundizko TMB-Biocompost plantan tratamendu mekaniko-biologikoa egiterakoan ematen da.

## 2.2. Aiarako kuadrilla



Aiarako hondakinen sorkuntza % 5a igo da, beherako joera hautsiz. 2024. urtean, 2023an baino 650 tona gehiago jaso dira. Bilketa bereizia % 7a igo da 2023an, eta bilketa orokorraren gehikuntzaren arrazoi nagusia da. Hondakin nahastuen bilketa ere handitu da, baina neurri txikiagoan.

Honako taula honetan, 2023 eta 2024ko bilketa-datuak elkartu dira, urte batetik besterako aldaketak ingurumen-irizpideen arabera koloreztatuz. Berdez ingurumena kontuan hartuz positiboak diren aldaketak adierazten dira, eta gorriz, berriz, negatiboak irudikatzen dira. Beraz, hondakin nahastuen frakzioaren jaitsiera positibotzat hartu behar da, baina ez da gauza bera gertatzen bereiz bildutako hondakinen kopuruekin.

***2019/1004 Europako Batzordearen Betearazpen Erabakiak*** ezarritako irizpideari jarraituz, urte ezberdinen artean ematen diren % 10a baino gehiagoko aldaketak baloratu behar dira, aldaketa txikiagoak aldagai estokastikoengatik gauzatu daitezkeela kontuan izanez.

| AIARAKO KUADRILLA | 2023. urtea | 2024. urtea | Konparaketa |
|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 7.993.080 | 8.329.120 | 4% |
| SUKALDEKO OLIOA | 24.840 | 21.296 | -14% |
| ONTZI ARINAK | 812.414 | 858.320 | 6% |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 371.661 | 359.840 | -3% |
| FORS | 347.949 | 336.493 | -3% |
| FOGO | 169.400 | 180.600 | 7% |
| INAUSKETA | 328.309 | 447.330 | 36% |
| BEIRA | 822.694 | 836.119 | 2% |
| PAPERA | 1.057.204 | 1.113.214 | 5% |
| OIHAL-HONDAKINAK | 140.887 | 163.103 | 16% |
| TEEH | 71.161 | 106.379 | 49% |
| ZURA | 674.961 | 745.575 | 10% |
| BESTE HEA BATZUK | 102.587 | 120.080 | 17% |
| ARRISKUTSUAK | 22.554 | 23.488 | 4% |
| GUZTIRA | 12.939.701 | 13.640.957 | 5,4% |
| Biztanleak (EIN) | 34.178 | 34.304 | 0,4% |
| kg/bizt./urte | 378,60 | 397,65 | 5,0% |

**7. taula:** Hondakinen sorkuntza, 2023-2024 (balioak kg-tan)

2023an gertatutakoa ez bezala, 2024. urtean ia frakzio guztiak igo dira, hondakin nahastuen bilketa barne, lehen aldiz handitu baita 2021etik.

Gehikuntzarik nabarmena TEEH frakzioarena da. Hala ere, sektore pribatuan partaidetza nabarmena duenez, zaila da hura baloratzea. Inausketa bigarren gehikuntzarik handiena izan da lurralde osoan, eta baliteke joera berarekin jarraitzea hurrengo ekitaldietan, frakzio honen estimazioa gero eta hobeto burutzearen ondorioz. Oihal-hondakinen eta normalean garbiguneen bidez biltzen diren frakzioen (zura eta beste HEA batzuk) gehikuntzak bilketa bereizien areagotzea adierazten du.

Hona hemen udalerrien arabera bildutako hondakinen taula. Frakzio gehienetan, banaketa biztanleriaren arabera egin da, udalerriaren araberako pisatze-datu zuzenik ez baitago.

| AIARAKO KUADRILLA | Amurrio | Artziniega | Aiara | Laudio | Okondo | AYALA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HONDARRAK | 2.464.951 | 453.240 | 872.049 | 2.934.163 | 295.002 | 7.019.405 |
| HONDARRAK, pneumatikoa | 0 | 0 | 0 | 1.309.715 | 0 | 1.309.715 |
| LAND.-OLIOA | 6.963 | 2.211 | 392 | 10.457 | 718 | 20.741 |
| LAND.-OLIOA, PBM | 48 | 82 | 131 | 0 | 54 | 315 |
| LAND.-OLIOA, Garbigunea | 240 | 0 | 0 | 0 | 0 | 240 |
| ONTZI ARINAK | 251.666 | 38.747 | 70.208 | 241.742 | 32.593 | 634.956 |
| ONTZI ARINAK, pneumatikoa | 0 | 0 | 0 | 166.266 | 0 | 166.266 |
| ONTZI ARINAK, osagarriak | 17.194 | 3.089 | 4.897 | 29.931 | 1.987 | 57.098 |
| BOL. HANDIKOAK | 65.980 | 22.030 | 18.027 | 167.800 | 2.003 | 275.840 |
| BOL. HANDIKOAK, LGG | 0 | 0 | 0 | 0 | 27.700 | 27.700 |
| BOL. HANDIKOAK, Garbigunea | 56.300 | 0 | 0 | 0 | 0 | 56.300 |
| FORS | 86.369 | 41.285 | 32.507 | 117.524 | 12.038 | 289.723 |
| FORS, AA komertziala | 18.708 | 0 | 0 | 28.062 | 0 | 46.770 |
| FOGO, komunitatearena | 16.800 | 1.500 | 1.500 | 0 | 0 | 19.800 |
| FOGO, etxekoa | 72.000 | 24.000 | 64.800 | 0 | 0 | 160.800 |
| INAUSKETA, udalekoa | 100.000 | 3.600 | 1.650 | 179.200 | 18.000 | 302.450 |
| INAUSKETA, LGG | 0 | 0 | 0 | 0 | 17.140 | 17.140 |
| INAUSKETA, Garbigunea | 63.120 | 0 | 0 | 64.620 | 0 | 127.740 |
| BEIRA | 246.151 | 61.454 | 66.697 | 439.354 | 22.463 | 836.119 |
| PAPERA | 217.073 | 34.275 | 51.412 | 239.922 | 28.562 | 571.244 |
| PAPERA, pneumatikoa | 0 | 0 | 0 | 140.763 | 0 | 140.763 |
| PAPERA, Garbigunea | 18.240 | 0 | 0 | 243.119 | 0 | 261.359 |
| PAPERA, AA komertziala, AFA | 27.740 | 18.040 | 0 | 22.400 | 0 | 68.180 |
| PAPERA, AA komertziala, kuadrilla | 18.161 | 0 | 5.050 | 42.357 | 0 | 65.568 |
| PAPERA, osagarriak | 1.837 | 330 | 523 | 3.198 | 212 | 6.100 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 48.030 | 8.630 | 13.679 | 83.609 | 5.552 | 159.500 |
| BERRERAB., Garbigunea | 3.603 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3.603 |
| TEEH, PBM | 106 | 180 | 286 | 0 | 118 | 690 |
| TEEH, Garbigunea | 23.764 | 0 | 0 | 56.640 | 0 | 80.404 |
| TEEH, pribatua | 1.286 | 0 | 39 | 23.960 | 0 | 25.285 |
| ZURA, Garbigunea | 146.420 | 0 | 0 | 590.420 | 0 | 736.840 |
| ZURA, osagarriak | 2.630 | 473 | 749 | 4.579 | 304 | 8.735 |
| BESTE HEA BATZUK PBM | 16 | 27 | 42 | 0 | 17 | 102 |
| BESTE HEA BATZUK, Garbigunea | 55.009 | 0 | 0 | 64.969 | 0 | 119.978 |
| ARRISKUTSUAK, PBM | 217 | 370 | 590 | 0 | 242 | 1.419 |
| ARRISKUTSUAK, SIGRE | 1.183 | 212 | 337 | 2.059 | 137 | 3.928 |
| ARRISKUTSUAK, Garbigunea | 8.989 | 0 | 0 | 9.152 | 0 | 18.141 |
| GUZTIRA | 4.040.794 | 713.775 | 1.205.565 | 7.215.981 | 464.842 | 13.640.957 |
| Biztanleak (EIN, 2024) | 10.330 | 1.856 | 2.942 | 17.982 | 1.194 | 34.304 |
| kg/bizt./urte | 391,17 | 384,58 | 409,78 | 401,29 | 389,31 | 397,65 |
| Hondakin nahastuak | 61% | 63% | 72% | 59% | 63% | 61% |
| Bilketa bereizia | 39% | 37% | 28% | 41% | 37% | 39% |
| Birziklapena + Berrerab. prestak. | 38% | 36% | 28% | 40% | 35% | 38% |

**8. taula:** Hondakinen sorkuntza udalerriaren arabera, 2024 (balioak kg-tan)

## 2.2.1. Bilketa-sistemak




**25. grafikoa:** Bilketa-sistema bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

2023an bilketa bereizia % 38ra jaitsi ondoren, 2024an % 39ko ehunekora igo da berriro.

Datu aipagarri gisa, papera biltzeko zerbitzua eraginkorra izan ez den arren, 2023an bildutakoarekin alderatuta, paperaren bilketa areagotu egin da, berriro ere kuadrilla honetan bereiz bildutako frakzio garrantzitsuen bilakatuz, pisuari dagokionez.

## 2.2.2. Bilketen bilakaera

Bilketa orokorra kontuan hartuta, gogoangarria da 2018tik EEH frakzioa etxeko hondakinen tauletatik kendu dela. Hala ere, 2017an eta aurreko urteetan ez da gauza bera gertatzen. 2020ko sorkuntzak 2021era arte luzatu zen gehikuntza izan zuen; geroztik, joera aldatu egin zen, jaisten hasiz. 2024an, joera-aldaketa bat egon da, eta sorkuntza igo egin da berriro ere.

Aiarako kuadrillak Vitoria-Gasteizko kuadrillaren antzeko joera du, lurraldeko datu orokorrak baldintzatzen dituzten hiri-izaera eta biztanleria-proportzio handiagoekin. Era berean, horrek esan nahi du datu orokorrek eta Aiarako kuadrillako datuek antzekotasunak izango dituztela, honako grafiko hauetan ikus daitekeen modura.




**26. grafikoa:** Hondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**27. grafikoa:** Hondakin nahastuen bilketaren historia, 2010-2024




**28. grafikoa:** Papera-kartoiaren bilketaren historia, 2010-2024




**29. grafikoa:** Ontzi arinen bilketaren historia, 2010-2024




**30. grafikoa:** Beiraren bilketaren historia, 2010-2024




**31. grafikoa:** Biohondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**32. grafikoa:** Oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen bilketaren historia, 2010-2024

## 2.2.3. Hondakinen tratamendua




**33. grafikoa:** Tratamendu bereiziko frakzio bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

2024an, berrerabiltzeko prestakuntzaren eta birziklapenaren ehunekoak 3 puntuko gorakada izan du. Joera hori positibo jarraituz eta biohondakinak bereiz biltzeko ahalegina eginez gero, hurrengo urteetarako birziklapen-helburu anbiziotsuak betetzeko aukera izango dugu.

Lehenago aipatu dugun moduan, ohikoa denez, masa-galeraren tratamendua hondakin nahastuen frakzioaren materia biodegradagarriak lurrunketa edo lixibiatu bidez galtzen duen hezetasun-galera da. Galera hori Jundizko TMB-Biocompost plantan tratamendu mekaniko-biologikoa egiterakoan ematen da.

## 2.3. Gorbeialdeko kuadrilla



2024. urtean, Gorbeialdeko kuadrillako hondakinen sorkuntzak % 8ko gorakada izan du, hau da, 2023an baino ia 400 tona gehiago. Hondakin nahastuak kopuru horren ¼ dira. Hala ere, bilketa bereizia igo egin da, eta horrek ere eragin positiboa izan du birziklapen-tasan.

Kuadrilla honek ez dauka garbigunerik; horregatik, normalean instalazio horien bidez biltzen diren frakzioek ez dute balio nabarmenik azaltzen. Hondakin horiek biltzeaz arduratzen den zerbitzua PBM da.

**Honako taula honetan, 2023 eta 2024ko bilketa-datuak elkartu dira, urte batetik besterako aldaketak ingurumen-irizpideen arabera koloreztatuz. Berdez ingurumena kontuan hartuz positiboak diren aldaketak adierazten dira, eta gorriz, berriz, negatiboak irudikatzen dira.** Beraz, hondakin nahastuen frakzioaren jaitsiera positibotzat hartzen da, baina ez da gauza bera gertatzen bereiz bildutako hondakinen kopuruarekin.

***2019/1004 Europako Batzordearen Betearazpen Erabakiak*** ezarritako irizpideari jarraituz, urte ezberdinen artean ematen diren % 10a baino gehiagoko aldaketak baloratu behar dira, aldaketa txikiagoak aldagai estokastikoengatik gauzatu daitezkeela kontuan izanez.

| GORBEIALDEKO KUADRILLA | 2023. urtea | 2024. urtea | Konparaketa |
|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 2.816.601 | 2.910.532 | 3% |
| SUKALDEKO OLIOA | 1.134 | 4.225 | 273% |
| ONTZI ARINAK | 319.130 | 338.862 | 6% |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 231.062 | 296.005 | 28% |
| FORS | 64.960 | 58.840 | -9% |
| FOGO | 247.775 | 295.256 | 19% |
| INAUSKETA | 638.820 | 889.200 | 39% |
| BEIRA | 399.815 | 360.712 | -10% |
| PAPERA | 241.592 | 220.218 | -9% |
| OIHAL-HONDAKINAK | 41.940 | 39.500 | -6% |
| TEEH | 44.330 | 34.713 | -22% |
| ZURA | 4.119 | 2.581 | -37% |
| BESTE HEA BATZUK | 344 | 331 | -4% |
| ARRISKUTSUAK | 5.567 | 5.764 | 4% |
| GUZTIRA | 5.057.189 | 5.456.739 | 8% |
| Biztanleak (EIN) | 10.098 | 10.192 | 0,9% |
| kg/bizt./urte | 500,81 | 535,39 | 7% |

**4. taula:** Hondakinen sorkuntza, 2023-2024 (balioak kg-tan)

2023an, sukaldeko olioen eta bolumen handikoen frakzioek jaitsiera nabarmena izan zuten, baina 2024an 2022ko balioak berreskuratu dira. Igoera nabarmena izan duen beste frakzioa biohondakinena (inausketa eta FOGO) izan da, azken urteetako joera berreskuratuz. Joera hori 2022 eta 2023ko ekitaldietan soilik eten zen.

Bilketa bereiziko frakzio nagusien artean, ontzi arinena da goranzko joera mantendu duen bakarra. Gainerakoek duela hainbat urtez errepikatu den beherako joera mantendu dute, batez ere beiraren eta paperaren kasuetan.

Azkenik, hondakin nahastuak handitu igo dira berriro ere. Hori 2022tik gertatu da.

Hona hemen udalerrien arabera bildutako hondakinen taula. Aramaio eta Arratzua-Ubarrundiako udalerriek datu errealak dituzte euren bilketa gehienetarako. Gainerako udalerriek, bilketa bateratuak dituztenez, biztanleriaren araberako sorkuntza-balioak dauzkate.

| GORBEIALDEKO KUADRILLA | Aramaio | Arratzua-Ubarrundia | Legutio | Urkabustaiz | Zigoitia | Zuia | GORBEIALDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HONDARRAK | 235.279 | 331.360 | 562.466 | 403.760 | 500.600 | 656.732 | 2.690.197 |
| HONDARRAK, barreiatzea | 0 | 7.875 | 0 | 0 | 0 | 0 | 7.875 |
| HONDARRAK, pribatua (isurketa) | 0 | 0 | 0 | 0 | 212.460 | 0 | 212.460 |
| LAND.-OLIOA, PBM | 142 | 105 | 207 | 145 | 184 | 237 | 1.020 |
| LAND.-OLIOA, udalekoa | 850 | 57 | 493 | 399 | 622 | 784 | 3.205 |
| ONTZI ARINAK | 49.690 | 52.000 | 57.939 | 41.591 | 51.565 | 67.442 | 320.227 |
| ONTZI ARINAK, osagarriak | 2.367 | 1.752 | 3.441 | 2.409 | 3.059 | 3.936 | 16.964 |
| ONTZI ARINAK, barreiatzea | 0 | 1.671 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1.671 |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 17.135 | 0 | 30.083 | 21.594 | 26.773 | 35.020 | 130.605 |
| BOLUMEN HANDIKOAK, LGG | 0 | 51.280 | 0 | 44.180 | 69.940 | 0 | 165.400 |
| FORS | 0 | 58.840 | 0 | 0 | 0 | 0 | 58.840 |
| FOGO, komunitatearena | 16.949 | 0 | 13.556 | 44.612 | 39.187 | 11.752 | 126.056 |
| FOGO, etxekoa | 30.960 | 9.000 | 11.520 | 18.720 | 37.800 | 61.200 | 169.200 |
| INAUSKETA, LGG | 0 | 134.480 | 0 | 32.440 | 220580 | 501.700 | 889.200 |
| BEIRA | 53.635 | 43.939 | 53.145 | 48.290 | 76.217 | 85.486 | 360.712 |
| PAPERA | 19.657 | 28.394 | 45.867 | 21.842 | 30.578 | 72.077 | 218.415 |
| PAPERA, osagarriak | 252 | 186 | 366 | 256 | 325 | 418 | 1.803 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 5.512 | 4.080 | 8.011 | 5.609 | 7.123 | 9.165 | 39.500 |
| TEEH, PBM | 311 | 230 | 452 | 317 | 402 | 518 | 2.230 |
| TEEH, pribatua | 0 | 2.584 | 3.097 | 0 | 26.802 | 0 | 32.483 |
| ZURA, osagarriak | 360 | 267 | 523 | 367 | 465 | 599 | 2.581 |
| BESTE HEA BATZUK, PBM | 46 | 34 | 67 | 47 | 60 | 77 | 331 |
| ARRISKUTSUAK, PBM | 641 | 475 | 932 | 653 | 829 | 1.066 | 4.596 |
| ARRISKUTSUAK, SIGRE | 163 | 121 | 237 | 166 | 210 | 271 | 1.168 |
| GUZTIRA | 433.949 | 728.730 | 792.402 | 687.397 | 1.305.781 | 1.508.480 | 5.456.739 |
| Biztanleak (EIN, 2024) | 1.381 | 1.047 | 2.086 | 1.462 | 1.844 | 2.372 | 10.192 |
| kg/bizt./urte | 314,23 | 696,02 | 379,87 | 470,18 | 708,12 | 635,95 | 535,39 |
| Hondakin nahastuak | 54% | 47% | 71% | 59% | 38% | 44% | 53% |
| Bilketa bereizia | 46% | 53% | 29% | 41% | 62% | 56% | 47% |
| Birziklapena + Berrerab. prestak. | 44% | 51% | 29% | 40% | 44% | 54% | 45% |

**5. taula:** Hondakinen sorkuntza udalerrien arabera, 2024 (balioak kg-tan)

## 2.3.1. Bilketa-sistemak




**34. grafikoa:** Bilketa-sistema bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Hondakin nahastuen frakzioa handitu den arren, 2024an Gorbeialdeko kuadrillaren bilketa bereizia ere igo egin da. Beraz, bilketa bereiziari dagokionez, bigarren kuadrilla da. Añanaren atzetik dago bakarrik, eta 2035erako % 50aren helburutik oso gertu dago.

Ehunekorik handiena duen bilketa bereizia da biohondakinen frakzioa da, sorkuntzarik altuena duen frakzioa baita. Gorbeialdeko kuadrillaren kasuan, bilketa honen zati handi bat LGG bidez biltzen den inausketarekin lotuta dago.

## 2.3.2. Bilketen bilakaera

Beste kuadrillek ez bezala, Gorbeialdean ez da aldaketa handirik egon datuen sailean, etxean sortutako EEH frakzioaren kontabilitatea 2018an kendu zelako. Arrazoia garbigunerik ez dagoela eta EEH frakzioa biltzen duten LGG gutxiago daudela da.

Aurrez aipatu dugun moduan, 2024an guztizko sorkuntza eta hondakin nahastuen frakzioa berriro ere handitu egin dira eta, dirudienez, horrek joera berri bat ekarri du kuadrillaren sorkuntzari dagokionez.

Biohondakinen eta ontzi arinen frakzioen salbuespenarekin, igo egin baitira, paperaren, beiraren eta oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen frakzioek jaitsiera txikietatik bitarteko jaitsieretara izan dituzte.




**35. grafikoa:** Hondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**36. grafikoa:** Hondakin nahastuen bilketaren historia, 2010-2024




**37. grafikoa:** Papera-kartoiaren bilketaren historia, 2010-2024




**38. grafikoa:** Ontzi arinen bilketaren historia, 2010-2024




**39. grafikoa:** Beiraren bilketaren historia, 2010-2024




**40. grafikoa:** Biohondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**41. grafikoa:** Oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen bilketaren historia, 2010-2024

## 2.3.3. Hondakinen tratamendua




**42. grafikoa:** Tratamendu bereiziko frakzio bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Kuadrillan bildutako hondakin gehienen tratamendua Vitoria-Gasteizko udalerriko instalazio zentralizatuetan egiten da, gainerako lurraldeko hondakinekin batera. Hala eta guztiz ere, bildutako kopuruetan oinarrituz, hondakinen hierarkiaren araberako tratamendu posible bakoitzera zuzentzen den ehunekoa pisuan kalkula daiteke.

Bilketa bereiziaren gehikuntzak bildutako hondakinen birziklapena sustatu du eta, horri esker, datuen ehunekoa 5 puntu igo da 2023koarekin alderatuta. Gorbeialdeko kuadrilla birziklapenaren bigarren postuan dago, eta Añanako kuadrilla dago bakarrik bere aurretik. Gainera, datu horien arabera, birziklapenak ezabaketa gainditu du lehen aldiz.

Berriro esanda, masa-galeraren tratamendua hondakin nahastuen frakzioaren materia biodegradagarriak lurrunketa edo lixibiatu bidez galtzen duen hezetasun-galera da. Galera hori Jundizko TMB-Biocompost plantan tratamendu mekaniko-biologikoa egiterakoan ematen da.

## 2.4. Arabako Errioxako kuadrilla



Aurreko ekitaldien modura, Arabako Errioxako kuadrillak, orokorrean, lurralde osoko bilketa bereiziaren daturik txarrena dauka. Hala ere, beste alde batetik, eredu arrakastatsu bat ezarri duen lehen kuadrilla izan da eta, hortaz, Arabako bilketa bereiziko tasarik handieneko udalerrietako bat du: Kripan. 2023an, Kripanek lidergoa Eltziegorekin partekatzen zuen, baina 2024. urtean tasa hori apur bat murriztu egin da.

Bilketa bereiziko balio altuak lortzea ahalbidetzen duen eredu hori etxeetako eta sortzaile handietako materia organikoaren AAko bilketan oinarritzen da. Horrekin batera, gainera, hondakin nahastuen edukiontzia txartelaren bidez irekitzeko sistema ere ezarri da. Bestalde, biohondakinen tratamendua toki-mailan burutzen da, bilketa-zerbitzuaren langileek kudeatutako komunitate-konpostagailuen bidez.

Biohondakinak bildu eta kudeatzeko eredu horri esker, biohondakinen bilketa bereiziaren eta birziklapenaren balioak asko handitu dira. Egia da bilketa bereiziari dagokionez antzeko balioak dituzten beste udalerri batzuk ere daudela, baina, kasu gehienetan, balio horiek LGGak edo garbiguneak egotearen ondorioa dira. Izan ere, sistema horiek udalerri berak hartzen duena baino pixka bat handiagoa den eremuan jaso ohi dituzte hondakinak, eta horrek bilketaren balioak handitu ohi ditu.

Honako taula honetan, 2023 eta 2024ko bilketa-datuak elkartu dira, urte batetik besterako aldaketak ingurumen-irizpideen arabera koloreztatuz. Berdez ingurumena kontuan hartuz positiboak diren aldaketak adierazten dira, eta gorriz, berriz, negatiboak irudikatzen dira. Beraz, hondakin nahastuen frakzioaren jaitsiera positibotzat hartzen da, baina ez da gauza bera gertatzen bereiz bildutako hondakinen kopuruarekin.

***2019/1004 Europako Batzordearen Betearazpen Erabakiak*** ezarritako irizpideari jarraituz, urte ezberdinen artean ematen diren % 10a baino gehiagoko aldaketak baloratu behar dira, aldaketa txikiagoak aldagai estokastikoengatik gauzatu daitezkeela kontuan izanez.

| ARABAKO ERRIOXA | 2023. urtea | 2024. urtea | Konparaketa |
|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 3.849.000 | 4.005.080 | 4% |
| SUKALDEKO OLIOA | 4.214 | 2.564 | -39% |
| ONTZI ARINAK | 383.044 | 378.849 | -1% |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 194.901 | 211.479 | 9% |
| FORS | 0 | 228.013 | 0% |
| FOGO | 324.322 | 73.624 | -77% |
| INAUSKETA | 93.990 | 118.225 | 26% |
| BEIRA | 661.083 | 618.431 | -6% |
| PAPERA | 367.033 | 342.405 | -7% |
| OIHAL-HONDAKINAK | 49.569 | 54.336 | 10% |
| TEEH | 68.183 | 78.716 | 15% |
| ZURA | 61.401 | 82.270 | 34% |
| BESTE HEA BATZUK | 35.038 | 35.984 | 3% |
| ARRISKUTSUAK | 19.897 | 15.547 | -22% |
| GUZTIRA | 6.111.675 | 6.245.523 | 2% |
| Biztanleak (EIN) | 11.226 | 11.204 | -0,2% |
| kg/bizt./urte | 544,42 | 557,44 | 2% |

**6. taula:** Hondakinen sorkuntza, 2023-2024 (balioak kg-tan)

Lurraldeko beste kuadrilla batzuetan gertatzen den antzera, 2024an hondakinen sorkuntza handitu egin da, eta horren garrantzi berezia du, hondakin nahastuen bilketa ere areagotu baita. Horrek 2018tik zegoen beherako joera hautsi egin du.

2023arekin alderatuta ikus daitekeen desberdintasunik nabarmenena biohondakinetan dago, aurreko edizioetan FOGOtzat hartu ziren biohondakinen zati bat aurten FORS gisa hartzea eragin duen kontabilitate-aldaketa bat egon baita. Ondorioz, egiazkoa ez den % 77ko jaitsiera ikus dezakegu. Aldaketa hori etxe- eta komunitate-konpostatzea FOGO (Jatorrian kudeatutako frakzio organikoa) barruan bakarrik zenbatzeagatik eman da, administrazioak ez baitu biltzen. FORS (Gaika bildutako frakzio organikoa) frakziorako, izan ere, bilketa-zerbitzua dago, esaterako kuadrillako zenbait udalerritan dagoen AAko bilketa-sistema. Guzti hori kudeaketa udalerri berean egiten den ala ez kontuan hartu gabe burutzen da.

Ondoren, udalerri bakoitzean bildutako hondakinen taula ikus daiteke. Kontuan hartu behar da frakzio gehienetan banaketa biztanleriaren arabera egin dela, udalerriaren araberako pisatze-datu zuzenik ez baitago.

| ARABAKO ERRIOXA | Malueta | Eltziego | Bilar | Kripan | Bastida | Guardia | Lantziego | Lapuebla de Labarca+A39 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HONDARRAK | 99.843 | 251.447 | 109.222 | 15.169 | 764.044 | 897.833 | 190.919 | 276.731 |
| LAND.-OLIOA, udalekoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LAND.-OLIOA, PBM | 36 | 119 | 39 | 21 | 193 | 181 | 87 | 107 |
| LAND.-OLIOA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ONTZI ARINAK | 7.363 | 51.673 | 5.191 | 4.635 | 76.595 | 51.991 | 6.992 | 23.413 |
| ONTZI ARINAK, osagarriak | 484 | 1.590 | 531 | 296 | 2.605 | 2.460 | 1.140 | 1.430 |
| BOL. HANDIKOAK | 1.418 | 4.654 | 1.555 | 867 | 7.627 | 7.203 | 3.338 | 4.186 |
| BOL. HANDIKOAK, LGG | 26.700 | 21.160 | 12.240 | 0 | 0 | 28.220 | 0 | 0 |
| BOL. HANDIKOAK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| FORS | 0 | 173.700 | 0 | 23.400 | 0 | 0 | 30.913 | 0 |
| FOGO, komunitatearena | 0 | 0 | 2.713 | 0 | 8.088 | 7.528 | 0 | 4.193 |
| FOGO, etxekoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| INAUSKETA, LGG | 1.180 | 7.960 | 6.340 | 0 | 0 | 6.500 | 0 | 0 |
| INAUSKETA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| INAUSKETA, udalekoa | 0 | 0 | 0 | 8.680 | 3.325 | 24.920 | 0 | 0 |
| BEIRA | 14.463 | 61.570 | 9.196 | 9.052 | 117.837 | 198.352 | 25.839 | 18.408 |
| PAPERA | 3.192 | 35.115 | 6.384 | 6.384 | 38.307 | 67.037 | 19.153 | 28.730 |
| PAPERA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| PAPERA, kuadrilla | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 7.640 | 0 | 0 |
| PAPERA, osagarriak | 52 | 171 | 57 | 32 | 280 | 264 | 123 | 154 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 1.306 | 4.285 | 1.431 | 799 | 7.022 | 6.631 | 3.073 | 3.854 |
| BERRERAB., Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| TEEH, PBM | 79 | 259 | 84 | 47 | 421 | 396 | 190 | 233 |
| TEEH, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| TEEH, pribatua | | 562 | | 84 | | 12.104 | 925 | 21 |
| ZURA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ZURA, osagarriak | 75 | 245 | 82 | 46 | 401 | 378 | 175 | 220 |
| BESTE HEA BATZUK, PBM | 12 | 39 | 13 | 7 | 63 | 59 | 28 | 35 |
| BESTE HEA BATZUK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| BESTE HEA BATZUK, kuadrilla (plastikoa) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1.800 | 0 | 0 |
| ARRISKUTSUAK, PBM | 163 | 534 | 173 | 96 | 868 | 816 | 392 | 479 |
| ARRISKUTSUAK, SIGRE | 33 | 109 | 37 | 20 | 179 | 169 | 78 | 98 |
| ARRISKUTSUAK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | 156.399 | 615.192 | 155.288 | 69.635 | 1.027.855 | 1.322.482 | 283.365 | 362.292 |
| Biztanleak (EIN, 2024) | 291 | 955 | 319 | 178 | 1.565 | 1.478 | 685 | 859 |
| kg/bizt./urte | 537,45 | 644,18 | 486,80 | 391,21 | 656,78 | 894,78 | 413,67 | 421,76 |
| Hondakin nahastuak | 64% | 41% | 70% | 22% | 74% | 68% | 67% | 76% |
| Bilketa bereizia | 36% | 59% | 30% | 78% | 26% | 32% | 33% | 24% |
| Birziklapena + Berrerab. prestak. | 35% | 58% | 30% | 76% | 26% | 33% | 34% | 24% |

**7. a. taula:** Hondakinen sorkuntza udalerrien arabera, 2024 (balioak kg-tan)

| ARABAKO ERRIOXA | Leza | Moreda Araba | Nabaridas | Oion | Samaniego | Villabuena Araba | Ekora | ARABAKO ERRIOXA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HONDARRAK | 109.003 | 56.207 | 52.640 | 862.258 | 134.042 | 114.307 | 71.415 | 4.005.080 |
| LAND.-OLIOA, udalekoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LAND.-OLIOA, PBM | 27 | 26 | 24 | 0 | 38 | 35 | 31 | 964 |
| LAND.-OLIOA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 1.600 | 0 | 0 | 0 | 1.600 |
| ONTZI ARINAK | 12.289 | 2.754 | 4.079 | 74.344 | 24.684 | 11.918 | 2.278 | 360.199 |
| ONTZI ARINAK, osagarriak | 350 | 358 | 318 | 5.681 | 483 | 483 | 441 | 18.650 |
| BOL. HANDIKOAK | 1.023 | 1.048 | 931 | 16.632 | 1.413 | 1.413 | 1.291 | 54.599 |
| BOL. HANDIKOAK, LGG | 10.780 | 0 | 11.600 | 0 | 0 | 0 | 0 | 110.700 |
| BOL. HANDIKOAK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 46.180 | 0 | 0 | 0 | 46.180 |
| FORS | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 228.013 |
| FOGO, komunitatearena | 3.764 | 0 | 1.842 | 29.858 | 8.946 | 0 | 6.692 | 73.624 |
| FOGO, etxekoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| INAUSKETA, LGG | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 21.980 |
| INAUSKETA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 17.600 | 0 | 0 | 0 | 17.600 |
| INAUSKETA, udalekoa | 7.000 | 840 | 30.240 | 0 | 0 | 0 | 3.640 | 78.645 |
| BEIRA | 11.749 | 12.550 | 5.275 | 76.418 | 27.466 | 19.395 | 10.861 | 618.431 |
| PAPERA | 6.384 | 3.192 | 3.192 | 67.037 | 15.961 | 12.769 | 6.384 | 319.221 |
| PAPERA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 13.540 | 0 | 0 | 0 | 13.540 |
| PAPERA, kuadrilla | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 7.640 |
| PAPERA, osagarriak | 38 | 38 | 34 | 610 | 52 | 52 | 47 | 2.004 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 942 | 965 | 857 | 15.313 | 1.301 | 1.301 | 1.189 | 50.269 |
| BERRERAB., Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 4.067 | 0 | 0 | 0 | 4.067 |
| TEEH, PBM | 59 | 56 | 53 | 0 | 82 | 77 | 67 | 2.103 |
| TEEH, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 23.345 | 0 | 0 | 0 | 23.345 |
| TEEH, pribatua | 0 | 0 | 0 | 39.572 | 0 | 0 | 0 | 53.268 |
| ZURA, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 79.400 | 0 | 0 | 0 | 79.400 |
| ZURA, osagarriak | 54 | 55 | 49 | 874 | 74 | 74 | 68 | 2.870 |
| BESTE HEA BATZUK, PBM | 9 | 8 | 8 | 0 | 12 | 11 | 10 | 314 |
| BESTE HEA BATZUK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 33.870 | 0 | 0 | 0 | 33.870 |
| BESTE HEA BATZUK, kuadrilla (plastikoa) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1.800 |
| ARRISKUTSUAK, PBM | 122 | 115 | 109 | 0 | 169 | 158 | 138 | 4.332 |
| ARRISKUTSUAK, SIGRE | 24 | 25 | 22 | 391 | 33 | 33 | 30 | 1.281 |
| ARRISKUTSUAK, Garbigunea | 0 | 0 | 0 | 9.934 | 0 | 0 | 0 | 9.934 |
| GUZTIRA | 163.617 | 78.237 | 111.273 | 1.418.524 | 214.756 | 162.026 | 104.582 | 6.245.523 |
| Biztanleak (EIN, 2024) | 210 | 215 | 191 | 3.413 | 290 | 290 | 265 | 11.204 |
| kg/bizt./urte | 779,13 | 363,89 | 582,58 | 415,62 | 740,54 | 558,71 | 394,65 | 557,44 |
| Hondakin nahastuak | 67% | 72% | 47% | 61% | 62% | 71% | 68% | 64% |
| Bilketa bereizia | 33% | 28% | 53% | 39% | 38% | 29% | 32% | 36% |
| Birziklapena + Berrerab. prestak. | 33% | 29% | 52% | 37% | 37% | 30% | 33% | 36% |

**8. b. taula:** Hondakinen sorkuntza udalerrien arabera, 2024 (balioak kg-tan)

## 2.4.1. Bilketa-sistemak




**43. a. grafikoa:** Bilketa-sistema bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

2024. urtean, Arabako Errioxako kuadrillak % 4 hondakin nahastu gehiago bildu zituen, baina bilketa bereizien balioak, berriz, ia ez dira aldatu 2023tik. Ondorioz, 2023arekin alderatuta, hondakinen guztizko sorkuntzaren bilketa bereiziaren azken balioa jaitsi egin da. Lurraldeko bilketari buruzko daturik baxuena da.

Hala ere, kuadrilla osoak balio hori duen arren, lurralde osoan bilketa bereiziko baliorik handiena duen udalerria ere hartzen du barne: Kripan. Eredu hori koadrilako beste udalerri batzuetan ere erabiltzen da, eta gero eta biztanle gehiagori eragiten die. Horrek esan nahi du datozen urteetako datu orokorrak hobetu egingo direla.




**43. b. grafikoa:** Bilketa-sistema bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)




**43. c. grafikoa:** Bilketa-sistema bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Bi kasuetan 2024ko bilketa bereiziak 2023koarekin konparatuta behera egin duen arren (9 eta 5 puntuko jaitsierekin, hurrenez hurren), Kripanek lehen postuan jarraitzen du Arabako Lurralde Historiko osoko bilketa bereiziari dagokionez. Eltziego, aldiz, bosgarren postuan dago.

## 2.4.2. Bilketen bilakaera

Guardia-Arabako Errioxako kuadrillaren hondakinen sorkuntzak azken urteotako joera hautsi du, 2023. urtearekin alderatuta igo egin baita. Hala eta guztiz ere, azken urteotan baino hondakin gutxiago sortzen jarraitzen du, 2023aren salbuespenarekin, gutxieneko historikoa hura izan baitzen.

Kripan eta Eltziegon ezarritako bilketa-ereduak eragina dauka biztanleriaren % 10ean, beraz, oraindik ez da gehiengoa duen eredu bat. Eredu hori gainerako udalerrietara hedatuz gero, hondakinen bilketa guztietan izan beharko luke eragina, orain arte irudikatutako joerak hobetuz.




**44. grafikoa:** Hondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**45. grafikoa:** Hondakin nahastuen bilketaren historia, 2010-2024




**46. grafikoa:** Papera-kartoiaren bilketaren historia, 2010-2024




**47. grafikoa:** Ontzi arinen bilketaren historia, 2010-2024




**48. grafikoa:** Beiraren bilketaren historia, 2010-2024




**49. grafikoa:** Biohondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**50. grafikoa:** Oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen bilketaren historia, 2010-2024

## 2.4.3. Hondakinen tratamendua




**51. grafikoa:** Tratamendu bereiziko frakzio bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Berriro ere, Guardia-Arabako Errioxako kuadrillan sortutako hondakin guztien birziklapen-balioa igo egin da. Hala ere, kuadrilla osoak dauka lurraldeko baliorik baxuena, bilketa bereiziaren tasa txikiaren ondorioz.

Kontraste gisa, Kripan eta Eltziegoko udalerriek lurraldeko udalerri-birziklapeneko baliorik altuenak dituzte (izan ere, Kripanen birziklapen-ehunekoa % 76koa da). Hori beren bilketa-ereduen ondorioa da, erabiltzailea identifikatzeko sistemari esker bilketa bereiziko balio altuak dituzte eta.

## 2.5. Arabako Lautadako kuadrilla



2024an, Arabako Lautadako kuadrillak 350 tona hondakin nahastu gutxiago sortu ditu, hau da, 2023an baino ia % 12 gutxiago. Datu positibo horri esker, kuadrillak hondakinen sorkuntzari dagokionez 2017tik duen beherako joera mantendu da.

Bilketa bereiziei dagokienez, berriz, FORS frakzioaren bilketak ez du lortu bilketa bereizitzat hartzeko beharrezkoa den ezegokien maila nahikoa. Hortaz, hondakin nahastu gisa kudeatu da. Egoera hori lehengoratzen denean, bereiz biltzen diren biohondakinen balioa nabarmen handituko da.

Honako taula honetan, 2023 eta 2024ko bilketa-datuak elkartu dira, urte batetik besterako aldaketak ingurumen-irizpideen arabera koloreztatuz. Berdez ingurumena kontuan hartuz positiboak diren aldaketak adierazten dira, eta gorriz, berriz, negatiboak irudikatzen dira. Beraz, hondakin nahastuen frakzioaren jaitsiera positibotzat hartu behar da, baina ez da gauza bera gertatzen bereiz bildutako hondakinen kopuruekin.

***2019/1004 Europako Batzordearen Betearazpen Erabakiak*** ezarritako irizpideari jarraituz, urte ezberdinen artean ematen diren % 10a baino gehiagoko aldaketak baloratu behar dira, aldaketa txikiagoak aldagai estokastikoengatik gauzatu daitezkeela kontuan izanez.

| ARABAKO LAUTADA | 2023. urtea | 2024. urtea | Konparaketa |
|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 3.045.503 | 2.692.279 | -11,6% |
| SUKALDEKO OLIOA | 1.904 | 1.580 | -17% |
| ONTZI ARINAK | 391.571 | 362.819 | -7% |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 319.050 | 293.241 | -8% |
| FORS | 0 | 0 | 0% |
| FOGO | 244.857 | 244.857 | 0% |
| INAUSKETA | 247.554 | 243.000 | -2% |
| BEIRA | 431.499 | 380.891 | -12% |
| PAPERA | 332.818 | 323.000 | -3% |
| OIHAL-HONDAKINAK | 67.689 | 69.721 | 3% |
| TEEH | 68.401 | 65.446 | -4% |
| ZURA | 163.637 | 174.617 | 7% |
| BESTE HEA BATZUK | 95.179 | 105.112 | 10% |
| ARRISKUTSUAK | 21.393 | 21.969 | 3% |
| GUZTIRA | 5.431.055 | 4.978.532 | -8% |
| Biztanleak (EIN) | 12.667 | 12.725 | 0,5% |
| kg/bizt./urte | 428,76 | 391,24 | -9% |

**8. taula:** Hondakinen sorkuntza, 2023-2024 (balioak kg-tan)

2024aren eta 2023aren arteko ezberdintasunik handiena hondakin nahastuen frakzioaren murrizketa nabarmena da. Horrek guztizko sorkuntzaren jaitsiera sustatzen du. Izan ere, 2023. urtearekin alderatuz gero, sorkuntza murriztu den lurraldeko kuadrilla bakarra da.

Behin ere, biohondakinen balioak aipagarriak dira. Alde batetik, erabilera-kontrolik gabeko edukiontzien bidez egindako ezegokien bilketaren balio altuaren ondorioz, FORS frakzioa hondakin nahastuen barruan kudeatu da. Beraz, ez da kopururik kontabilizatu FORS gisa. Beste alde batetik, FOGO frakzioaren kasurako, 2023an zuen balio bera erabili da, ez baita aldaketarik egin etxe- eta komunitate-konpostatzearen hornidurari dagokionez.

Ez dago informazio nahikorik bildutako sukaldeko olio-kantitatearen eta beira kopuruaren murrizketa ebaluatzeko.

Hona hemen udalerrien arabera bildutako hondakinen taula. Frakzio gehienetan, banaketa biztanleriaren arabera egin da, udalerriaren araberako pisatze-datu zuzenik ez baitago.

| ARABAKO LAUTADA | Alegría-Dulantzi | Asparrena | Barrundia | Elburgo | Iruraiz-Gauna | Salvatierra/Agurain | San Millán | Zalduondo | LAUTADA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HONDARRAK | 728.761 | 394.143 | 219.726 | 156.281 | 132.519 | 410.799 | 177.837 | 48.008 | 2.268.074 |
| HONDARRAK, pneumatikoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 407.580 | 0 | 0 | 407.580 |
| HONDARRAK, barreiatzea | 0 | 0 | 7.000 | 9.625 | 0 | 0 | 0 | 0 | 16.625 |
| HONDARRAK, bide-garbiketa (isurketa) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| HONDARRAK, pribatua (isurketa) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LAND.-OLIOA, Garbigunea | 350 | 0 | 0 | 0 | 0 | 535 | 0 | 0 | 885 |
| LAND.-OLIOA, PBM | 16 | 231 | 129 | 92 | 78 | 17 | 104 | 28 | 695 |
| ONTZI ARINAK | 74.456 | 40.267 | 22.445 | 15.963 | 13.534 | 41.969 | 18.167 | 4.900 | 231.701 |
| ONTZI ARINAK, pneumatikoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 106.930 | 0 | 0 | 106.930 |
| ONTZI ARINAK, osagarriak | 4.945 | 2.681 | 1.463 | 1.069 | 920 | 8.580 | 1.198 | 323 | 21.179 |
| ONTZI ARINAK, barreiatzea | 0 | 0 | 1.337 | 1.672 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3.009 |
| BOL. HANDIKOAK, udalekoa | 5.746 | 22.242 | 228 | 4.524 | 2.149 | 0 | 4.682 | 0 | 39.571 |
| BOL. HANDIKOAK, LGG | 0 | 23.200 | 75.520 | 0 | 0 | 0 | 15.140 | 24.480 | 138.340 |
| BOL. HANDIKOAK, Garbigunea | 38.700 | 0 | 0 | 0 | 0 | 76.630 | 0 | 0 | 115.330 |
| FORS | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| FOGO, komunitatearena | 0 | 12.800 | 6.754 | 9.000 | 0 | 0 | 4.928 | 4.015 | 37.497 |
| FOGO, etxekoa | 11.280 | 42.960 | 37.920 | 19.680 | 21.840 | 26.880 | 40.080 | 6.720 | 207.360 |
| INAUSKETA (pesaketarik gabe) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| INAUSKETA, LGG | | 56.940 | 60.480 | 0 | 0 | 0 | 59.020 | 25.400 | 201.840 |
| INAUSKETA, Garbigunea | 41.160 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 41.160 |
| BEIRA | 62.331 | 67.093 | 37.323 | 24.493 | 14.221 | 133.152 | 35.018 | 7.260 | 380.891 |
| PAPERA | 53.764 | 61.829 | 13.441 | 16.129 | 8.065 | 94.087 | 18.817 | 2.688 | 268.820 |
| PAPERA, garbigunea | 20.480 | 0 | 0 | 0 | 0 | 31.440 | 0 | 0 | 51.920 |
| PAPERA, osagarriak | 528 | 286 | 156 | 114 | 98 | 916 | 128 | 34 | 2.260 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 14.422 | 7.820 | 4.267 | 3.116 | 2.684 | 25.024 | 3.495 | 942 | 61.770 |
| BERRERAB., Garbigunea | 7.951 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 7.951 |
| TEEH, PBM | 34 | 504 | 281 | 200 | 169 | 37 | 227 | 61 | 1.513 |
| TEEH, Garbigunea | 25.534 | 0 | 0 | 0 | 17.839 | 0 | 0 | 0 | 43.373 |
| TEEH, pribatua | 10.326 | 8.177 | 0 | 133 | 1.924 | 0 | 0 | 0 | 20.560 |
| ZURA, Garbigunea | 88.000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 83.380 | 0 | 0 | 171.380 |
| ZURA, osagarriak | 756 | 410 | 224 | 163 | 141 | 1.311 | 183 | 49 | 3.237 |
| BESTE HEA BATZUK, PBM | 5 | 75 | 42 | 30 | 25 | 6 | 34 | 9 | 226 |
| BESTE HEA BATZUK, Garbigunea | 50.926 | 0 | 0 | 0 | 0 | 53.960 | 0 | 0 | 104.886 |
| ARRISKUTSUAK, PBM | 71 | 1.038 | 579 | 412 | 349 | 77 | 469 | 126 | 3.121 |
| ARRISKUTSUAK, SIGRE | 340 | 184 | 101 | 74 | 63 | 590 | 82 | 22 | 1.456 |
| ARRISKUTSUAK, Garbigunea | 11.535 | 0 | 0 | 0 | 0 | 5.857 | 0 | 0 | 17.392 |
| GUZTIRA | 1.252.417 | 742.880 | 489.416 | 262.770 | 216.618 | 1.509.757 | 379.609 | 125.065 | 4.978.532 |
| Biztanleak (EIN, 2024) | 2.971 | 1.611 | 879 | 642 | 553 | 5.155 | 720 | 194 | 12.725 |
| kg/bizt./urte | 421,55 | 461,13 | 556,79 | 409,30 | 391,71 | 292,87 | 527,23 | 644,66 | 391,24 |
| Hondakin nahastuak | 58% | 53% | 46% | 63% | 61% | 54% | 47% | 38% | 54% |
| Bilketa bereizia | 42% | 47% | 54% | 37% | 39% | 46% | 53% | 62% | 46% |
| Birziklapena + Berrerab. prestak. | 39% | 45% | 51% | 37% | 38% | 43% | 51% | 57% | 44% |

**9. taula:** Hondakinen sorkuntza udalerrien arabera, 2024 (balioak kg-tan)

## 2.5.1. Bilketa-sistemak




**52. grafikoa:** Ehunekoa bilketa-sistemen arabera (%a pisuan)

Hondakin nahastuen frakzioaren jaitsierari esker, 2024an, Arabako Lautadako kuadrillaren bilketa bereiziaren ehunekoa sortutako hondakin guztien % 46a izan da. Bilketa bereiziei arreta berezia jarriz gero, 2023arekin alderatuta balio zertxobait txikiagoa dutela ikus dezakegu: % 4 txikiagoa, hau da, 100 tona inguruko ezberdintasuna.

Biohondakinen zati bat hondakin nahastu gisa tratatu den arren, biohondakinen frakzioa, orokorrean, bereiz biltzen den frakzio nagusia da. Kalitate handiagoko biohondakinen bilketa egitea lortzen den unean, ziur aski, bilketa bereizia nabarmen handituko da.

Biohondakinekin jarraikiz, ez dago inausketaren kudeaketari buruzko daturik. Halakorik izango bagenu, baliteke bilketa bereiziaren ehunekoa igotzea, bilketa bereiziaren % 50aren helburura iritsiz, frakzioaren kontabilitatea hobeagoa izango litzatekeelako.

## 2.5.2. Bilketen bilakaera

Arabako Lautadako kuadrillak sorkuntzaren beherako joera berreskuratu du, eta gutxieneko historikoa izan du 2010. urtetik. Datu positibo hori, gainera, FORS frakzioa behar bezala kudeatzea lortzen denean hobetu egingo da.

Aurretiaz aipatu denez, 2023arekin alderatuta, oihal-hondakinen ehunekoa bakarrik igo da. Aztertutako gainerako frakzioek bilketa txikiagoa izan dute 2024an.




**53. grafikoa:** Hondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**54. grafikoa:** Hondakin nahastuen bilketaren historia, 2010-2024




**55. grafikoa:** Papera-kartoiaren bilketaren historia, 2010-2024




**56. grafikoa:** Ontzi arinen bilketaren historia, 2010-2024




**57. grafikoa:** Beiraren bilketaren historia, 2010-2024




**58. grafikoa:** Biohondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**59. grafikoa:** Oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen bilketaren historia, 2010-2024

## 2.5.3. Hondakinen tratamendua




**60. grafikoa:** Tratamendu bereiziko frakzio bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Hainbat urtez birziklapen-tasa % 37 ingurukoa izan den arren, 2024an, balio hori % 43raino igo da Arabako Lautadako kuadrillan. Aldez aurretik aipatu den moduan, FORS frakzioa behar bezala kudeatzen denean, balio hori berriro areagotuko da.

Berriro esanda, masa-galeraren tratamendua hondakin nahastuen frakzioaren materia biodegradagarriak lurrunketa edo lixibiatu bidez galtzen duen hezetasun-galera da. Galera hori Jundizko TMB-Biocompost plantan tratamendu mekaniko-biologikoa egiterakoan ematen da.

## 2.6. Arabako Mendialdeko kuadrilla



2022ko gutxieneko historikoaren ondoren, 2023tik, hondakinen sorkuntza igo da Arabako Mendialdeko kuadrillan, goranzko joera ezarriz. Zorionez, frakzio bereizien gehikuntza hondakin nahastuena baino handiagoa izan da. Hortaz, datuak hobeak dira aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero.

Honako taula honetan, 2023 eta 2024ko bilketa-datuak elkartu dira, urte batetik besterako aldaketak ingurumen-irizpideen arabera koloreztatuz. Berdez ingurumena kontuan hartuz positiboak diren aldaketak adierazten dira, eta gorriz, berriz, negatiboak irudikatzen dira. Beraz, hondakin nahastuen frakzioaren jaitsiera positibotzat hartu behar da, baina ez da gauza bera gertatzen bereiz bildutako hondakinen kopuruekin.

***2019/1004 Europako Batzordearen Betearazpen Erabakiak*** ezarritako irizpideari jarraituz, urte ezberdinen artean ematen diren % 10a baino gehiagoko aldaketak baloratu behar dira, aldaketa txikiagoak aldagai estokastikoengatik gauzatu daitezkeela kontuan izanez.

| ARABAKO MENDIALDEA | 2023. urtea | 2024. urtea | Konparaketa |
|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 1.073.559 | 1.081.479 | 1% |
| SUKALDEKO OLIOA | 1.989 | 1.188 | -40% |
| ONTZI ARINAK | 103.782 | 102.625 | -1% |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 186.940 | 193.410 | 3% |
| FORS | 0 | 0 | 0% |
| FOGO | 72.700 | 63.675 | -12% |
| INAUSKETA | 114.790 | 128.340 | 12% |
| BEIRA | 167.326 | 186.890 | 12% |
| PAPERA | 76.778 | 75.360 | -2% |
| OIHAL-HONDAKINAK | 15.541 | 17.626 | 13% |
| TEEH | 15.207 | 22.880 | 50% |
| ZURA | 35.230 | 42.397 | 20% |
| BESTE HEA BATZUK | 13.836 | 28.924 | 109% |
| ARRISKUTSUAK | 6.509 | 6.771 | 4% |
| GUZTIRA | 1.884.187 | 1.951.565 | 4% |
| Biztanleak (EIN) | 3.117 | 3.139 | 1% |
| kg/bizt./urte | 604,49 | 621,72 | 3% |

**10. taula:** Hondakinen sorkuntza, 2023-2024 (balioak kg-tan)

Lehenago aipatutakoaren arabera, sorkuntza handitu egin da, batez ere bilketa bereizia ere handiagoa izan delako, 2023arekin konparatuta % 7a igo baita. Frakzio batzuen bilketaren hazkundea (beste HEA batzuk, zura, hondakin arriskutsuak, etab.), dirudienez, Kanpezu-Arabako Mendialdean garbigunea gehiago erabiltzearen ondorioa da, 2024. urtean biztanleen % 14ak erabili baitu. TEEH, inausketa, beira eta oihal-hondakinen frakzioen gehikuntzak baloratzea zaila da, dagozkien bilketa-sistemetan ez delako aldaketarik egon.

Beste alde batetik, sukaldeko olio erabilien bilketaren jaitsiera kontabilitate-arazo bati egozten zaio, ekitaldi honetan ez baitago Arraia-Maeztuko udalerriko edukiontzien bidezko bilketari buruzko daturik. Bestalde, FOGO frakzioa ere jaitsi egin da, biohondakinen kopuru txikiagoa bildu duen komunitate-konpostatzea egiteko programa bati esker.

Hona hemen udalerrien arabera bildutako hondakinen taula. Frakzio gehienetan banaketa biztanleriaren arabera egin dela gogorarazi behar dugu, udalerriaren araberako pisatze-datu zuzenik ez baitago.

| ARABAKO MENDIALDEA | Arraia-Maeztu | Bernedo | Kanpezu | Lagrán | Urizaharra | Harana | MENDIALDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HONDARRAK | 283.204 | 188.113 | 373.815 | 58.570 | 104.048 | 73.729 | 1.081.479 |
| LAND.-OLIOA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LAND.-OLIOA, PBM | 154 | 103 | 49 | 33 | 57 | 42 | 438 |
| LAND.-OLIOA, Garbigunea | 0 | 0 | 750 | 0 | 0 | 0 | 750 |
| ONTZI ARINAK | 25.506 | 16.942 | 33.666 | 5.275 | 9.371 | 6.640 | 97.400 |
| ONTZI ARINAK, osagarriak | 1.368 | 909 | 1.806 | 283 | 503 | 356 | 5.225 |
| BOL.- HANDIKOAK, LGG | 35.690 | 78.880 | 10.000 | 0 | 43.760 | 5.720 | 174.050 |
| BOL.-HANDIKOAK, Garbigunea | 0 | 0 | 19.360 | 0 | 0 | 0 | 19.360 |
| FORS | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| FOGO, komunitatearena | 17.962 | 4.711 | 17.226 | 0 | 0 | 736 | 40.635 |
| FOGO, etxekoa | 9.360 | 2.880 | 5.040 | 2.160 | 2.880 | 720 | 23.040 |
| INAUSKETA, LGG | 16.180 | 32.640 | 7.360 | 16.660 | 23.500 | 3.360 | 99.700 |
| INAUSKETA, Garbigunea | 0 | 0 | 28.640 | 0 | 0 | 0 | 28.640 |
| BEIRA | 45.140 | 39.521 | 50.616 | 11.587 | 19.741 | 20.285 | 186.890 |
| PAPERA | 19.489 | 11.425 | 24.194 | 2.688 | 6.048 | 3.360 | 67.204 |
| PAPERA, Garbigunea | 0 | 0 | 7.600 | 0 | 0 | 0 | 7.600 |
| PAPERA, osagarriak | 146 | 97 | 192 | 30 | 53 | 38 | 556 |
| OIHAL-HONDAKINAK | 4.004 | 2.660 | 5.285 | 828 | 1.471 | 1.042 | 15.290 |
| BERRERAB., Garbigunea | 0 | 0 | 2.336 | 0 | 0 | 0 | 2.336 |
| TEEH, PBM | 337 | 224 | 106 | 71 | 125 | 91 | 954 |
| TEEH, Garbigunea | 0 | 0 | 18.792 | 0 | 0 | 0 | 18.792 |
| TEEH, kuadrillla | 731 | 486 | 965 | 151 | 269 | 190 | 2.792 |
| TEEH, pribatua | 0 | 35 | 0 | 307 | 0 | 0 | 342 |
| ZURA, Garbigunea | 0 | 0 | 41.600 | 0 | 0 | 0 | 41.600 |
| ZURA, osagarriak | 209 | 139 | 275 | 43 | 77 | 54 | 797 |
| BESTE HEA BATZUK, PBM | 50 | 33 | 16 | 11 | 19 | 14 | 143 |
| BESTE HEA BATZUK, Garbigunea | 0 | 0 | 28.781 | 0 | 0 | 0 | 28.781 |
| ARRISKUTSUAK, PBM | 694 | 461 | 219 | 147 | 258 | 187 | 1.966 |
| ARRISKUTSUAK, SIGRE | 94 | 62 | 124 | 19 | 35 | 24 | 358 |
| ARRISKUTSUAK, Garbigunea | 0 | 0 | 4.447 | 0 | 0 | 0 | 4.447 |
| GUZTIRA | 460.318 | 380.321 | 683.260 | 98.863 | 212.215 | 116.588 | 1.951.565 |
| Biztanleak (EIN, 2024) | 822 | 546 | 1.085 | 170 | 302 | 214 | 3.139 |
| kg/bizt./urte | 560,00 | 696,56 | 629,73 | 581,55 | 702,70 | 544,80 | 621,72 |
| Hondakin nahastuak | 62% | 49% | 55% | 59% | 49% | 63% | 55% |
| Bilketa bereizia | 38% | 51% | 45% | 41% | 51% | 37% | 45% |
| Birziklapena + Berrerab. prestak. | 38% | 47% | 43% | 40% | 48% | 36% | 42% |

**11. taula:** Hondakinen sorkuntza udalerrien arabera, 2024 (balioak kg-tan)

## 2.6.1. Bilketa-sistemak




**61. grafikoa:** Bilketa-sistema bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Hondakin nahastuen sorkuntza apur bat igo den arren, bilketa bereiziaren ehunekoa % 45eraino handitu da. Etorkizuneko ekitaldietan biohondakinen bilketa handitzen bada, ez da zaila izango 2035erako ezarritako bilketa bereiziaren % 50eko helburua gainditzea.

Lurraldeko gainerako kuadrillak ez bezala, bolumen handiko hondakinen frakzioa garrantzitsuenetako bat bilakatu da bilketa bereizien barruan. Aipatu behar da lurraldeko bilketa osoaren % 13a landa-gune garbien (LGG) bolumen handiko eta inausketako hondakinetatik datorrela.

## 2.6.2. Bilketen bilakaera

2023an gertatu zen modura, hondakinen sorkuntza areagotu egin da Arabako Mendialdeko kuadrillan; horrek joera aldatu du aurreko urteekin konparatuta. Kuadrilla honek duen kg/biztanleko-urtea balio altua lurraldeko batez besteko balioa baino askoz handiagoa da. Horren arrazoia da, batez ere, kuadrillan oso biztanle gutxi erroldatu direla. Izan ere, udako bigarren bizietxe ugari daude, erroldatu gabeko biztanle mugikor ugarirekin.




**62. grafikoa:** Hondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**63. grafikoa:** Hondakin nahastuen bilketaren historia, 2010-2024




**64. grafikoa:** Papera-kartoiaren bilketaren historia, 2010-2024




**65. grafikoa:** Ontzi arinen bilketaren historia, 2010-2024




**66. grafikoa:** Beiraren bilketaren historia, 2010-2024




**67. grafikoa:** Biohondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**68. grafikoa:** Oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen bilketaren historia, 2010-2024

## 2.6.3. Hondakinen tratamendua




**69. grafikoa:** Tratamendu bereiziko frakzio bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

2024. urtean bilketa bereizi handiagoa egin denez, birziklapen-balioa % 42koa izan da, hau da, 2023koa baino 7 puntu altuagoa. Gehikuntza nabarmena da eta, biohondakinen bilketa bereizi hobea eginez mantentzen bada, laster ezabaketaren uneko balioa (bildutako hondakinen % 45) gaindituko du.

Berriro esanda, masa-galeraren tratamendua hondakin nahastuen frakzioaren materia biodegradagarriak lurrunketa edo lixibiatu bidez galtzen duen hezetasun-galera da. Galera hori Jundizko TMB-Biocompost plantan tratamendu mekaniko-biologikoa egiterakoan ematen da.

## 2.7. Vitoria-Gasteizko kuadrilla



Vitoria-Gasteizko kuadrilla lurraldeko biztanleriaren % 75a inguru da, eta horren moduko ehunekoa duen hondakinen sorkuntza ere badauka. Hori dela eta, bertan sortzen diren hondakinen bilketa eta kudeaketak lurraldeko datu-multzoei zuzenean eragiten diete.

Kuadrilla honen garrantzia ere lurraldeko hondakinen kudeaketa-instalazio nagusiak bertan daudelako da handia. Izan ere, Vitoria-Gasteizko Udalak Jundizko TMB-Biocompost plantaren eta Gardelegi zabortegiaren kudeaketa zuzentzen du.

Vitoria-Gasteizko kuadrillak 2023an baino 2000 tona gehiago sortu ditu 2024an. Datu positiboa, hala ere, hazkunde hori batez ere bilketa bereizietan eman dela da, hondakin nahastuen sorkuntzak etengabe jaisten jarraitzen baitu. Horrek lehen aldiz bilketa bereizia % 40raino iristea ahalbidetuko du, eta mugarri hori gainerako lurraldean zehar ere hedatzen ari da, bertan ere bilketa bereiziak zifra hori gainditu baitu.

Honako taula honetan, 2023 eta 2024ko bilketa-datuak elkartu dira, urte batetik besterako aldaketak ingurumen-irizpideen arabera koloreztatuz. Berdez ingurumena kontuan hartuz positiboak diren aldaketak adierazten dira, eta gorriz, berriz, negatiboak irudikatzen dira. Beraz, hondakin nahastuen frakzioaren jaitsiera positibotzat hartu behar da, baina ez da gauza bera gertatzen bereiz bildutako hondakinen kopuruekin.

***2019/1004 Europako Batzordearen Betearazpen Erabakiak*** ezarritako irizpideari jarraituz, urte ezberdinen artean ematen diren % 10a baino gehiagoko aldaketak baloratu behar dira, aldaketa txikiagoak aldagai estokastikoengatik gauzatu daitezkeela kontuan izanez.

Vitoria-Gasteizko kuadrillan udalerri bakar bat dagoenez, honako taula honek bere jarduera-eremuan bildutako hondakin guztiak adieraziko ditu.

| VITORIA-GASTEIZ | 2023. urtea | 2024. urtea | Konparaketa |
|---|---|---|---|
| HONDAKIN NAHASTUAK | 58.747.800 | 57.870.403 | -1,5% |
| SUKALDEKO OLIOA | 200.311 | 219.967 | 9,8% |
| ONTZI ARINAK | 6.235.974 | 6.253.977 | 0,3% |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 3.471.269 | 3.590.060 | 3,4% |
| FORS | 4.207.930 | 4.576.009 | 8,7% |
| FOGO | 110.450 | 111.810 | 1,2% |
| INAUSKETA | 3.744.347 | 4.462.950 | 19,2% |
| BEIRA | 5.597.726 | 5.668.450 | 1,3% |
| PAPERA | 9.588.134 | 11.196.201 | 16,8% |
| OIHAL-HONDAKINAK | 1.007.664 | 1.007.638 | 0,0% |
| TEEH | 1.060.264 | 1.176.498 | 11,0% |
| ZURA | 458.882 | 481.920 | 5,0% |
| BESTE HEA BATZUK | 173.551 | 136.485 | -21,4% |
| ARRISKUTSUAK | 123.264 | 120.839 | -2,0% |
| GUZTIRA | 94.727.566 | 96.873.207 | 2,3% |
| Biztanleak (EIN) | 253.672 | 255.886 | 0,9% |
| kg/bizt./urte | 373,43 | 378,58 | 1,4% |

**12. taula:** Hondakinen sorkuntza, 2023-2024 (balioak kg-tan)

Bilketa bereiziko frakzio gehienek gehikuntza apalak izan dituzte, batez ere inausketa-, paper- eta TEEH-hondakinen bilketaren kasuetan. Inausketari dagokionez, frakzio horren kontabilitatea hobeagoari esker, 2023koa baino % 20 handiagoa den datua lortu ahal izan dugu. Paperaren kasuan, aldaketaren arrazoia hiriguneko sortzaile handien analisi hobeagoa izan da. Horri esker, bilketa nabarmen areagotu ahal izan da. Azkenik, TEEH frakzioaren bilketa sektore pribatuko bilketaren aldaketen eraginpean dagoela aipatu behar da. Beraz, ez dago analisi egokia egiteko informazio nahikoa.

Beste HEA batzuen frakzioaren jaitsiera, berriz, udal-garbiguneen erabileraren ondorioa da. Frakzio horren bilketa, hortaz, jaitsi egin da 2023. urtekoarekin konparatuz gero.

Oso nabarmena ez den arren, FORS frakzioaren hazkundea aipatu behar da, batez ere 2024an edukiontzi guztiek izan dutelako itxigailua. Ziurrenik, horrek eragina izan du biztanleriak egindako bilketan.

## 2.7.1. Bilketa-sistemak




**70. grafikoa:** Bilketa-sistema bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Bilketa bereiziak 2023an soilik eten egin zen goranzko joera berreskuratu du, sortutako hondakin guztien % 40ra iritsiz. Paperaren bilketa da behin ere gailena; bigarren postuan, aldiz, biohondakinak daude. Hondakinen zehazketaren araberako sorkuntzaren analisia kontuan hartuta, biohondakinak dira gehien sortzen diren frakzioa. Ondorioz, berea izan beharko litzateke lehen postua bilketa bereiziei dagokienez.

## 2.7.2. Bilketen bilakaera

2024an, berriz ere, hondakinen sorkuntza handitu egin da Vitoria-Gasteizko kuadrillan, 2022. urtean gertatu zen modura. Hala ere, ez da gehikuntza handia izan, azken bost urteotakoen antzeko balioak mantendu baititu. Hala eta guztiz ere, aipagarria da hondakin nahastuen beherako joera ez dela eten. Horri esker, bere garrantzia urtez urte murrizten ari da.

Bilketa bereizi nagusiei dagokienez, oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen eta ontzi arinen frakzioek soilik izan dute jaitsiera txiki bat. Gainerako frakzioak, berriz, handitu egin dira 2023. urtearekin alderatuz gero, eta hazkunde horren arrazoia lehenago aipatutako sorkuntzaren areagotzea izan da.




**71. grafikoa:** Hondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**72. grafikoa:** Hondakin nahastuen bilketaren historia, 2010-2024




**73. grafikoa:** Papera-kartoiaren bilketaren historia, 2010-2024




**74. grafikoa:** Ontzi arinen bilketaren historia, 2010-2024




**75. grafikoa:** Beiraren bilketaren historia, 2010-2024




**76. grafikoa:** Biohondakinen bilketaren historia, 2010-2024




**77. grafikoa:** Oihal-hondakinen eta berrerabiltzekoen bilketaren historia, 2010-2024

## 2.7.3. Hondakinen tratamendua




**78. grafikoa:** Tratamendu bereiziko frakzio bakoitzaren ehunekoa (%a pisuan)

Bilketa bereiziaren % 40rainoko gehikuntzari esker, birziklapen-tasa % 39ra iritsi ahal izan da, hau da, 2023an baino 3 puntu gehiago. Gainera, horrek bilketa bereizi hobeagoa burutzeak birziklapenaren emaitzak zuzenean hobetzen dituela frogatu du.

Berrerabiltzeko prestakuntzarekin batera, % 40raino iristen dela esan daiteke. Horrek 2025ean gainditu behar den % 55aren helburutik gertuago kokatzen du.

Berriro esanda, masa-galeraren tratamendua hondakin nahastuen frakzioaren materia biodegradagarriak lurrunketa edo lixibiatu bidez galtzen duen hezetasun-galera da. Galera hori Jundizko TMB-Biocompost plantan tratamendu mekaniko-biologikoa egiterakoan ematen da.

## 3. PRU2030aren helburu estrategikoak

*Arabako hiri-hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planak (2017- 2030) edo PRU2030ak* zenbait Helburu Estrategiko (HE) ezartzen ditu interes handiko hiru arlotan: Gobernamendua, Hondakinen hierarkia eta Jasangarritasuna. Ez dugu PRU2030eko egoeraren jarraipen osoa egingo, baina Arabako Hondakinen Inbentarioak Hondakinen Hierarkiarekin lotutako helburuak balioesteko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du:

02.HE. Prebentzioa (kuantitatiboa)

03.HE. Prebentzioa (kualitatiboa)

04.HE. Berrerabiltzeko prestakuntza

05.HE. Birziklapena

06.HE. Beste balorizazio mota bat

07.HE. Ezabaketa segurua

Sei helburu horiek PRU2030aren bilakaeraren parte bat balioztatzea ahalbidetzen duten 10 adierazle sortzen dituzte guztira. Adierazle horiek kalkulatzeko erreferentziako urtea 2016a da (aurreko plangintza aldia amaitu zen urtea), adierazlearen definizioan bertan kontrakoa adierazi ezean. Hala ere, irudikapen grafikoa estandarizatzeko 2010a erabili da oinarri-urte gisa, ***Ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legea***ren erreferentzia-urtea delako.

Adierazleak kalkulatzeko informazioa Arabako Hondakinen Behatokiaren datu-basearen bidez lortu da. Urte batzuetarako erregistratutako baliorik ez dagoenez, ezin izan da horien irudikapen grafikorik sortu.

Adierazle batzuk kalkulatzeko eskuragai dauden zehazketak erabili dira; horregatik, 2011 eta 2016 urteen kasuan 2011n egindako zehazketa erabili da, eta 2017. urtetik 2022. urtera, berriz, 2017aren amaieran eta 2018aren hasieran egindakoa. 2023an, 2025era arte erabiliko den erreferentziazko zehazketa berria egin zen. 2025. urtean, aldiz, beste zehazketa bat burutuko da.

Kasu batzuetan, erreferentziazko zehazketaren aldaketa dela-eta, ondoko urteen arteko alde handia dago, baina kontraste hori ez dauka erlaziorik kudeaketa-ereduarekin, baizik eta erreferentziazko zehazketaren aldaketarekin.

02.HE. Prebentzioa (kuantitatiboa)

2030ean sortutako hiri-hondakinen pisua % 15etik gora murriztea, 2016an sortutakoen pisuaren aldean. Helburu horri, 7/2022 Legearen helburuak gehitu zaizkio, hau da, 2010arekin alderatuta 2025erako hiri-hondakinen pisua % 13a eta 2030erako % 15a murriztea.

1. adierazlea

ALHn sortutako hiri-hondakinen guztizko pisua.




**79. grafikoa:** Hondakinen sorkuntzaren bilakaera, Araba, 2010-2024

2010. urtearekin alderatuta, 2024an sorkuntza % 9a jaitsi da. 2016arekin konparatuz gero, berriz, jaitsiera % 1ekoa izan da.

Ekonomiaren eta hondakinen sorkuntzaren arteko desakoplamenduari dagokionez (2. adierazlea), berriz, joera positiboa da, 2018tik gero eta hondakin gutxiago sortzen baitira BPGko 1000 €-ko.

## 2. adierazlea

Desakoplamendu-adierazlea (ALHn sortutako hiri-hondakinak, kg-tan, Arabako BPGko 1000 €-ko).




**80. grafikoa:** Hondakinen sorkuntzaren eta BPGaren arteko desakoplamendua, Araba, 2010-2024

03.HE. Prebentzioa (kualitatiboa)
Ezegokien presentzia eta bananduta biltzen diren hiri-hondakinen frakzio guztietako arriskugarritasuna etengabe eta pixkanaka murriztea.

3. adierazlea
Bereiz bildutako frakzio organikoko (FORS) ezegokien presentziaren adierazlea Ezegokien presentziaren batez besteko ehunekoa, pisuan. Eskuragarri dagoen azken zehazketaren araberako kalkulua.




**81. grafikoa:** Bereiz bildutako frakzio organikoko ezegokien ehunekoa

Hondakinen behatokiak 2023an egindako hondakinen zehazketari esker, bereiz bildutako frakzio organikoan (FORS) bildutako ezegokien batez besteko ehunekoa eguneratu ahal izan da. Beraz, lurraldeko ezegokien batez besteko balioa % 11koa da. Hala ere, lurraldean gaur egun ezarritako bilketa bereiziko sistemek aipagarriak diren ezberdintasunak dauzkate. Zehazketa egin zenean (2023ko azaroa-ekaina), aztertu ziren bilketa-sistemak honako hauek izan ziren:

- Añanako kuadrilla: mekanikoki itxitako edukiontziak.
- Aiarako kuadrilla: mekanikoki itxitako edukiontziak.
- Gorbeialdeko kuadrilla: mekanikoki itxitako edukiontziak.
- Arabako Lautadako kuadrilla: edukiontzi irekiak eta erabilera-kontrolik gabeko bilketa pneumatikoa.
- Arabako Mendialdeko kuadrilla: bilketarik ez (komunitate-konpostatzearen bidezko kudeaketa).
- Arabako Errioxako kuadrilla: AAko bilketa.
- Vitoria-Gasteizko kuadrilla: mekanikoki itxitako edukiontziak eta erabilera-kontrolik gabeko bilketa pneumatikoa.

Ezberdintasun handia hauteman da erabilera-kontrola duten sistemen eta halakorik ez dutenen ezegokien kopuruen artean. Baliorik altuenak erabilera-kontrolik gabeko sistemek dituzte. Grafiko honetan, kuadrilla bakoitzaren ezegokien balioak irudikatzen dira, zehazketaren unean ezarritako bilketa-sistemaren arabera. Pixkanaka-pixkanaka, kuadrilla guztiak ezartzen ari dira frakzio organikoa bildu eta kudeatzeko sistemak, baina oraindik oso hedatuta ez daudenez, 82. grafikoan kuadrilla bakoitzerako irudikatzen diren ezegokien ehunekoek 2023. urteko egoeran oinarritutako datuei egiten diete erreferentzia.




**82. grafikoa:** Ezegokien ehunekoa FORS frakzioan
(N: bilketa pneumatikoa; C: edukiontzia; *lagin bakarra)

Ikus daitekeenez, erabilera-kontrolik gabeko bilketaren kasuan, ezegokien ehunekoak % 20a gainditzen du. Erabilera-kontrolen bat duten sistemen kasuan, berriz, ehuneko hori % 6koa besterik ez da. Aipagarria da laginketa lurralde osoko balio adierazgarriak edukitzeko burutu zela. Hortaz, kuadrillen araberako laginak ez dira adierazgarriak estatistikoki.

4.a adierazlea

Arrisku-adierazlea. Nahastuta bildutako hondakinetan dauden hondakin arriskutsuen ehunekoa, pisuan. Eskuragarri dagoen azken zehazketaren araberako kalkulua.




**83. grafikoa:** Hondakin nahastuen frakzioko hondakin arriskutsuen ehunekoa

Hondakin nahastuen frakzioko hondakin arriskutsuen arrisku-adierazleak bildutako hondakinen arriskugarritasun-balioa eskaintzea du helburu. Hala ere, ez du horien sorkuntzari buruzko informazio zuzenik ematen. Araban sortzen diren hondakinen arriskugarritasuna hobeto ulertzeko xedearekin, hondakin nahastuen frakzioaren barruan biltzen diren hondakin arriskutsuak kontabilizatu behar dira, baita bereiz biltzen diren hondakin arriskutsuen kopurua ere. Bi kopuru horien batuketaren emaitza hondakin arriskutsuen sorkuntza da.

2023. eta 2024. urteen sorkuntza aztertuz gero, hondakin arriskutsuen sorkuntza % 0,4 jaitsi dela ikus daiteke. Horrek esan nahi du sorkuntzak antzeko balioak mantendu dituela.

4.b adierazlea

Arrisku-adierazlea. Hildako animalien hondakinen presentzia masan bildutako hondakinetan (zk.). Helburua: Batere ez 2020az geroztik.




**84. grafikoa:** Animalien hondakinen presentzia Jundizko TMB-Biocompost plantan, 2016-2023

2016tik, masako bilketaren frakzioko animalien hondakinen presentziaren bilakaerak beherako joera nabarmena izan du. Hala ere, gehikuntza txiki batzuk izan zituen 2020 eta 2023aren arteko aldian. 2024ko datuen arabera, adierazle honen beherako joera berreskuratu da.

04.HE. Berrerabiltzeko prestakuntza
Berrerabiltzeko prestatzen diren hiri-hondakinen frakzioen ehunekoa eta kopurua handitzea, 2025ean pisuan gutxienez % 5era iritsi arte, Arabako Lurralde Historikoan sortutako hiri-hondakin guztietatik.

Adierazle hau **Ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Lege**aren argitalpenaren ondorioz aldatu egin da. Hasiera batean, betetze-urtea 2030 zen, baina 2025era aurreratu da. 2030erako, % 10aren helburua ezarri da.

5. adierazlea
Berrerabiltzeko prestakuntzaren ehunekoa, pisuan.




**85. grafikoa:** Berrerabiltzeko prestakuntzaren ehunekoa, Araba, 2010-2024

Ehuneko hori edukiontzi zuriaren, garbiguneetako 2. bizitzako etxolen, Vitoria-Gasteizko bolumen handiko hondakinen udal-bilketaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ReutilizaGune-aren bidez biltzen diren berrerabiltzeko prestatutako materialen kg-en arabera kalkulatzen da.

05.HE. Birziklapena
Hiri-hondakin guztietarako:

Birziklatzen diren hiri-hondakinen kopuruak handitzea, halako moldez non berrerabiltzeko prestatutakoaren eta birziklapenaren ehuneko bateratua gutxienez 2025an % 55a (pisuan) eta 2030an % 60a (pisuan) heltzea lortuz, ALHn sortutako hiri-hondakin guztietan oinarrituta.

Hiri-hondakinak osatzen dituzten frakzio nagusietarako:

a) Biohondakinak. Pisuan hiri-hondakinen frakzio nagusia izateagatik, 2023az geroztik (urte horretan, biohondakinaren bilketa bereiziak ALH osoan zehar hedatuta egon beharko du), frakzio horri aplikatuko zaizkion birziklapenerako prestakuntza-helburuak hiri-hondakin guztiei aplikatzen zaizkienen antzekoak izango dira, hots, % 55a 2025ean eta % 60a 2030ean.

b) Hiri-hondakinak osatzen dituzten gainerako frakzioen kasuan, aldiz, lurraldez gaindiko mailan (hau da, Europa-, estatu- eta autonomia-mailan) ezarritako birziklatze-helburuak aplikatzen dira.

6. adierazlea
Berrerabiltzeko prestakuntzaren eta birziklapenaren ehuneko bateratua gutxienez 2025an % 55era (pisuan) eta 2030an % 60era (pisuan) iristea lortu behar da, ALHn sortutako hiri-hondakin guztietan oinarrituta.




**86. grafikoa:** Birziklapenaren eta berrerabiltzeko prestakuntzaren ehunekoa, Araba, 2010-2023

7. adierazlea
2025ean sortutako biohondakinen % 55aren birziklapena eta 2030an sortutakoen % 60a.




**87. grafikoa:** Biohondakinen birziklapenaren ehunekoa, Araba, 2010-2024

2020. urtean ikus daitekeen gehikuntza COVID-19ak sortutako osasun-krisiaren ondorioz hartutako hondakinen tratamendu-neurri bereziei dagokie.

8. adierazlea

Papera, Ontzi arinak eta Beira frakzioen gutxieneko birziklapena % 50ekoa izan da pisuan 2020an sortutakoarekin konparatuz, % 55ekoa pisuan 2025arekin alderatuz eta % 60koa pisuan, aldiz, 2030arekin konparatuz.

Frakzio horietarako, 2011z geroztik jaso dira datuak; urte horretan lurraldeko hondakinen lehen zehazketa egin zen. Paper eta beirarako lortutako helburua delarik ere, ontzi arinak bertatik urrun daude oraindik.




**88. grafikoa:** Paperaren birziklapenaren ehunekoa, Araba, 2011-2024




**89. grafikoa:** Birziklatutako ontzi arinen ehunekoa, Araba, 2011-2024




**90. grafikoa:** Beiraren birziklapenaren ehunekoa, Araba, 2011-2024

Lehenago aipatu denez, adierazle horren balioak kalkulatzeko 2011, 2018 eta 2023ko zehazketen datuak erabili dira. 2016a da 2011ko datuak erabili dituen urtea; 2017a, berriz, 2018ko hasierako zehazketa erabili zen lehen urtea izan zen. Hori dela eta, bi ekitaldi horien artean dagoen tartea adierazlearen kalkulua egiteko erreferentzia-aldaketari dagokio.

### 06.HE. Beste balorizazio mota bat

Birziklapenetik ezberdinak diren beste balorizazio-tratamenduak jaso dituzten hiri-hondakinen ehunekoa % 15 atalasez azpitik (pisuan) mantentzea, ALHn sortutako hiri-hondakin guztietatik.

2012tik eskuragarri ditugun datuei jarraikiz, grafiko honetan balorizazio energetikora zuzendutako hondakinen ehunekoa adierazten da; balorizazio energetikoa lurraldean birziklapenetik ezberdina den balorizazio bakarra da.

Beraz, grafikoak balorizazio energetikora zuzendutako hondakinen ehunekoa azken urteetan ez dela asko aldatu eta helburu estrategikoak ezarritako gehienezkotik urrun mantentzen dela erakusten du.

### 9. adierazlea

Balorizazio energetikora zuzendutako hondakinen ehunekoa.




**91. grafikoa:** Balorizazio energetikoaren ehunekoa, Araba, 2012-2024

### 07.HE. Ezabaketa segurua

2030ean, zabortegian utzitako udal-hondakinen kopurua sortutako hondakinen % 15aren mugarriaren azpitik jaistea.

### 10 a adierazlea

Zabortegira zuzendutako hondakinen ehunekoa.




**92. grafikoa:** Zabortegiko ezabaketaren ehunekoa, Araba, 2010-2024

Lurraldean sortutako hondakinen guztizkoaren % 46a (pisuan) bideratzen da zabortegiko ezabaketara, nahasturik zein bereizita bildu diren kontuan hartu gabe.

10 b adierazlea

ALHn zabortegian utzitako *per capita* hiri-hondakinak.




**93. grafikoa:** Zabortegiko ezabaketaren kg/biztanleko-urtea ratioa, Araba, 2010-2024

## 4. Ondorioak

20224an, **134.768 hondakin-tona** sortu dira Arabako Lurralde Historikoan; beraz, **biztanle bakoitzeko, 397,39 kg** sortu egin dira. Datu horren arabera, % 2,5eko gehikuntza egon da 2023arekin alderatuta, hau da, azken bost urteotan egondako lehen hazkundea.

Hala eta guztiz ere, **bilketa bereizia % 8a igo da**, eta hondakin nahastuen ehunekoa, berriz, % 1a jaitsi da 2024. urtean. Ondorioz, **bilketa bereiziaren ehunekoa % 41**era iritsi da. Hortaz, **bildutako hondakin guztien % 59a nahasturik** bildu da. 2035erako ezarritako helburua bilketa bereizia % 50era iristea da. Joera mantenduz gero, helburu hori ezarritako dataren aurretik ere lortu ahal izango da.

Izan ere, 2024an, **% 50eko bilketa bereizia duten 13 udalerri** daude dagoeneko. Lurraldeko baliorik altuena Kripanek du, % 78arekin.

- Kripan % 78
- Gaubea % 65
- Zigoitia % 62
- Zalduondo % 62
- Eltziego % 59
- Iruña Oka % 57
- Zuia % 56
- Barrundia % 54
- Arratzua-Ubarrundia % 53
- Nabaridas % 53
- Donemiliaga % 53
- Bernedo % 51
- Urizaharra % 51

Datu horiek baloratzeko, kontuan izan behar dugu udalerri horietako batzuek udal gaindiko jatorriko hondakinak biltzen dituzten instalazioak dituztela. Kasu horietan bilketa bereiziaren balioei eragiten dieten instalazioak Gaubeako eta Iruña Okako garbiguneak dira, baita LGGak ere. Bilketa bereiziaren balioak baxuagoak izan ohi dira instalazio mota horiek ez dituzten udalerrietan. Aipagarria da baita ere inausketaren kontabilitatea oso defizitarioa dela lurraldeko udalerri batzuetan. Hortaz, baliteke bilketa bereizia handiagoa izatea horietako batzuetan.

Bilketa bereiziarekin jarraikiz, 2024ko abenduaren 31rako, ***Ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legeak*** oihal-hondakinak, bolumen handiko hondakinak, sukaldeko olio erabiliak eta etxeko hondakin arriskutsuak bereiz biltzeko sistemak ezarri behar izan dira. Bilketa horiek orain duela urte batzuk burutzen dira lurraldeko 51 udalerrietan.

**Biohondakinek** aipamen berezia merezi dute; horien barruan, inausketa izan da hazkunderik handiena izan duena. 2023arekin alderatuta, **inausketa % 19a igo da, eta FORS frakzioa**, berriz,

% 12a. Aipagarria da FORS frakzioaren hazkundea frakzio hori biltzera bideratutako edukiontziak ixten ari diren arren gauzatu izana. Orokorrean, jokaera hori biztanleriak parte hartzeko motibazioa galtzea eragin dezakeela uste da.

Gainera, 2023ko txostenean aipatu genuenez, edukiontzien itxierari esker, FORS frakzioaren barruko ezegokien maila nabarmen murriztu egin da, ***7/2022 Legea*** betez. Izan ere, lege horren arabera, ezegokiek % 20a gaindituz gero, FORS frakzioa ezingo litzateke bilketa bereizitzat hartu eta, beraz, hondakin nahastuen modura kontabilizatu beharko litzateke. 2023ko zehazketak % 5,7a islatu zuen ezegokiei dagokienez; 2025eko zehazketaren zain egon beharko dugu balio horren bilakaera ikusteko.

**Hondakinen tratamenduari** dagokionez, berriz, 2023arekin konparatuta, 2024an birziklapenaren eta berrerabiltzeko prestakuntzaren ehunekoa hiru puntu igo da, % 40ra iritsiz. Nabarmengarria da paperaren eta beiraren kasuetan Europako birziklapen-helburuak jada bete direla, % 74 eta % 78ko ehunekoekin, hurrenez hurren. 2025erako ezarritako helburua % 55ekoa da birziklapenaren eta berrerabiltzeko prestakuntzaren kasuan.

Bilketa bereiziaren helburuarekin gertatzen den modura, 2020rako ezarritako **birziklapenaren eta berrerabiltzeko prestakuntzaren % 50aren helburua dagoeneko gainditu duten 10 udalerriak** aipatu behar dira, baita 2025erako ezarritako % 55aren helburua ere jada gainditu dutenak:

- Kripan % 76
- Gaubea % 61
- Eltziego % 58
- Zalduondo % 57
- Iruña Oka % 55
- Zuia % 54
- Nabaridas % 52
- Arratzua-Ubarrundia % 51
- Barrundia % 51
- Donemiliaga % 51

Azkenik, 2023arekin alderatuta ezabaketa 2 puntu jaitsi dela nabarmendu behar da, % 46ra iritsiz. Zabortegia gero eta gutxiago erabiltzen da azken helmuga gisa, eta % 18ko murrizketa izan du azken 10 urteotan. 2030erako helburua ezabaketaren ehunekoa gehienez % 15ekoa izatea da.